

Zeruko ARGIA



IDAIZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 SAN SEBASTIAN - TEL. 426666 - PREZIOA 7 PEZETA

FERNANDO TAPIA

Aurtengo txapelketa berotu eta sutu duen pelotaria

Bai aurtengo pelotari txapelketa berotu eta sutu duen pelotaria Fernando Tapia dugu.


1961an bere mailako pelotari guztiak garaitu ondotik, bere anaiarekin batera profesionalen sailera pasatu zen.

1964ean Paskuali irabazi ondoren bigarren maila edo kategorikoen artean txapelkun genduen. Geroztik urtez-urte, goren mailako pelotariez burukuraturik dabila. Lehen mailako txapelketaotan, Tapiak oraindik ez du zori handirik izan.

Bi alditan egondurik da Txapela lortzeko atzetan; baina batean Azkaratek eta bestean Retegik menperatu zuten.

Zigor haien mingostasunek Tapiarekikoak ez zituzten egin halare. Bere buruaz etsitzeke ondoko txapelketetan ere parte hartuaz jarraitu izan du Tapiak. Aurten, hainbat amestu duen Txapela, sekula baino gertuago du. Retegi gaurko Txapelkunarengana iristeko ahalmena izan du, eta zuzen zuzen beroni jokatu dio azken partidua Eibarko Astelena pelotatik. Fernando Tapia 1940 urtean, Irailaren 16an jaio zen. Bere sorleku: Azkoitia. Kondairan zehar Euskal Herriari hamaika pelotari eman izan dion herrikoa.

Tapia pelotari izanez at, mutil jator eta zentzuzkoa dugu. Elkarrizketa hau moldatzeko bere adiskide Pakorekin joan gatzazkio. Ez digu ezeren eragozpenik ipini, ezagutzen du Zeruko Argia. Bertarako lantxo bat egin nahi gendukeela adierazi diogunean, nahiz eta jaiegun izan, bere egitekoak utzirik pozik datorkigu.



nando. Zer gertatzen da, zu egundaino bezain hobeto prestaturik ala kontrarioak besteetan baino ahulagoak?

—Kontrarioak besteetan baino ahulagoak izan ditudanik ez nuke esango. Neu ongi prestaturik nago. Eskuak beste urtetan baino hobeto daduzkat. Operazio bat egin zidaten eta oso ondo utzi zizkidaten. Nik kontrario guztiak oso gorrak izan ditut, oraindik ez denei irabazteko zoria izan dut. Baina berriz dizut, aurtengo txapelketan izan dituan suerte istimagarriena, eskuak sendo edukitzea da.

—Fernando, garbi eta lagun bezala hitzegini. Bati baino gehiago entzun izan diot. Zuk pelotaritzaz gogotsuago hartu izan bazenu, aspaldidanik Txapeldun zinela. Zer derizkiozu iritzi honi?

—Galdera hori egitean arrazoirik ez zaizu falta. Nik nere aldetik erantzun dizut. Ahalegin guztiak egin ditut baina orainarte ez dut suerterik izan. Bati amestu izan dut txapeldun izateaz. Bi bider heldu naiz semifinalak jokatzera, bata Azkaratekin eta bestea Retegi beronekin. Leren guztiak eman ondotik bietan galtzaile nintzen justu-justu. Bata 21ean eta bestea 18an. Nik orduan bezalaxe, orain ere nahi dut Txapela. Ia oraingoan etxeratzen dugun. Zahartzera eta Txapeldun (hemen Tapiak burua pittin bat astindu digu) izatea nahiko neketsu izango zaigu. Baina...

—Zuk Urola ibarreko txapelketetan, artean gaztea zinelarik, aurrelari jokatzeko zenuen. Profesio-

nalizatuz geroz beti atzelari ezaizuten zaitugu. Zein tokitan jokatzeko gustoenik?

—Orduan aurrelari nintzen eta toki horretan oso gustora jokatzeko nuen. Artean nere anaia gaztea ez zen pelotan jokatzeko hasia. Gero bata bestearekin laguntzarren biok elkarturik bikote bezala jokatzeko hasi ginen. Ni, zaharragoa izaki, atzelaritzara pasatu nintzen, eta gaur arte horretan ari naiz. Baina egia esan oso pozik jokatzeko dut aurretik ere.

—Goazemazu Retegiri joka behar dituzun partiduez mintzatzera. Eibarko Astelena pelotatik gogozkoa ahal zaizu?

—Bai Astelena gaur dadukagun pelotalekurik ederrena izango dugu. Anoetakoa ere ez da txarra ez Gasteizkoa ere. Beldurrik gehiena Iruñekoari nion, baina pasatu genduen hura. Eibarkoa neretzat oso ona da, ez dadukat kejarik.

—Lehenengo aldiz Retegiri jokatu zenionean erraz galdu zenuen. Bigarrenean ordea kontu estuak ziren eta ia zeuk garaitu zenuen. Hirugarrenean ekarriko ahal duzu Txapela Urolara?

—Bai, ahal badut bai. Ia nola ateratzen zaizkidan gauzak. Retegik uzten badit... nik ekarriko dut.

—Retegik dituen egokitasunetatik zeinek beldurtzen zaitu gehienik: Sakeak, boleak, besakadak?

—Denak, sakeak, boleak ere bai, hitz batez esan da: denak. Bakarkako partiduetarako Retegik asko balio du. Arras egokia eta hartarako egina da.

—Bakarkako partidua jokatzeko

zer da hobe, kontrarioa ezkerre ala eskubia izatea?

—Ezkerrek beti larrialdi gehiago emanten du. Jokabidez diferente izan ohi da. Ezkerrek beti kezka gehiago eman izan dit neri.

—Atano X-ak sakeak txokotik atereaz zigortu zuen Retegi. Zuk ere berdin edo gisako zerbait egingo ahal duzu Astelena?

—Ez dakit oraindik sakeak nola egingo ditudan. Azkena jokatu nionean, neuk ere sakeak txokotik egin nizkion. 18-17 geundela sake bat huts egin nuen eta zeharo beldurturik gelditu nintzen. Aurten ez dakigu ba zer egingo dugun.

—Txapeldun izateak alde on asko ahal dakarkio pelotariari?

—Bai noski, Txapeldun izateak, nik uste dut, geroko kontratu eta partiduetarako alde ederrik baduela. Honez gainera Txapeldun izatea herri batetarako ere pozgarri izango den ustea dut.

—Fernando, Azkoitiko herriak majina bat Txapeldun eman dio Euskal Herriari. Azkoitiara zeran partetik nahiko zenuke noski zeu ere Txapeldun izatea...

—Bai, horixe, diozun bezala gure herriak Txapeldun asko irten dira. Haien artean nere izena idazteak asko pozuko ninduke. Nere amets haundi bat horixe duzu.

—Zuk ongi dakizun bezala, azkenaldiotan zenbait pelotarik atxikiz edo behar den hainako garbitasunez jokatzeko ez duela eta bada-bila franko gorabehera. Gai honi buruz zer diozu?

—Penagarria da lagunartean horrela ibili beharra, baina gauzak holaxe sortzen dira askotan. Problema honek pelotarian artean baino kanpokoan artean oihartzun gehiago izan du. Guk denakin lehen bezala lagun izanaz jarraitzen dugu.

—Gaurko esku-pelotaritzari zer etorkizun ikusten diozu?

—Ona, Beti-poz eta Aurrezki kutxak pelotaren alde lan asko egingo ari dira. Atzo bertan Azkoitiko Memorial Txikito de Azkoitiaren izenez eratu ziren finalak jokatu ziren, Azkoitiaren bertan pelotari politikak datoz eta nik etorkizun ona ikusten dut.

—Gazteak, pelotan hasten diren gazteak esan nahi genuke, goratzeko bide egokiak ahal daude?

—Gure garaian baino askoz hobeak, gu hamasei urtetan Zestura joaten ginan; korredore eta guzti jokatzeko genituen partidua. Gaur ez dago horrelakorik, askoz hobeto eraturik daude.

—Eta azkenik Fernando, Zeruko Argiako irakurleei zer esaten diezu?

—Eskerrik asko zuei guztiok, esan dizudan bezala ni ahaleginduko naiz Urolara Txapela ekartzeko.

Guk ere eskertzen dizugu zure arrera jatorra, Fernando. Eta bene-benetan opa dizugu hilaren hamairuan Txapela jantziar Azkoitiaren sartzera. Aurtengoan ongi merezia bait duzu.

ANATSAN

Baserritarra eta eskola

Gaingan dugu nekazarien eguna. Gutxi-asko gehienek lan egin beharko dute. Jai egingo dutenak gutxi izango dira. Urrengo eguneko eguraldiarekin ametsetan gehienak lotaratu dira. Atzeratutik gauzkatzen lanak nola aurreratu sumatu ezinik ohea porrokatuko dute jira eta bira.

Baina badator nekazarien eguna. Apaizak elizan, idazleok al-dizkarietan, olerkariak olerkietan, ordezkariak hermandadetan eta dendariak dendetan, baserritarrak goratu ezinik ibilko gara. Eta baserritarrek harako "ainguru-goldalarien" hura bezala sinetsiko digute denai. Ez digute sinetsiko. Gure goralpen guztiak "ahuntzaren gauerdiko ezularen pareko" izango dira. Gezurrezko olerkiak denak.

Dena den guk gaurko baserritarrek eskolari eta eskolak baserritarrei elkarrei dieten begirapena aztertu nahi genuke.

Baserritarrek eskolari buruz zer pentsatzen duten jakitea ez da erraz. Ez bait dute denek berdin pentsatzen. Baina sarritan entzun izan diegu bati baino gehiagori "eskolak ondatu duela mundua".

Badirudi, beraz, eskolari muzin eta iseka egiten diotela. Ez da arritzekoa.

Alde batetik eskoladun jendeak lagundu baino kalte gehiago egin dio. Ziri asko sartu dio eskoladun jendeak. Kalte asko ez badio egin nahi izan ere, farra behintzat asko egin nahi izan dio. Bestalde zerbait ikasi duten baserritarrek ihes egin dute baserritik. Besterik ezin duenari opa izan zaio nekazaritza.

Baina horrek bakarrik ez dio eskolarako gogoia kendu. Eskolan ezer gutxi eman zaio nekazaritzarako probetxugarri gertatuko zaionik. Nekazaritzarako ezer balio ez duten lau gauzatzu buruz ikasgarri zaizkio. Eskolak baino gehiago erakutsi diote gurasoek, lurak, abereak, tresnak, bizitzak. Hamaika alferrikako gauza ikasten ari ote den irudipena hartzen du eskolan.

Gaiak gai, nekazari bati inolaz ere ez dagokion eran eman nahi zaizkio gainera. Ikusiz ikasten ohi-tua dago baserriko umea. Izaia bera du baserriko umeak libururik onena. Eskolan, berriz, jatorrizko liburu bizi hori bazter arazi eta beste batzuk ilunagoak, otzagoak, lehorragoak eta aspergarriagoak eman zaizkio. Gogalkarri gertatzen zaizkio eskolako liburuak. Egun osoan batetik bestera gauzak ikusten, ikuitzen, erabiltzen eta ezagutzen jardun den umea, bapatean gela itxi batean, mahai eta aulki tarte estuan sartu dute.

Hortaz gainera ez zaio bere izkuntzarik aintzakotzat artu. Ez dakien mintzaira arrotzean erakutsi nahi zaio. Era hontan, ez premiazkoa duen erderarik erakutsiko zaio eta ez beste gauza askorik jaso ahal izango du. Buruz motza eta erdaldunak baino motelagoa ote den susmo eta irudipen txarra sartuko zaio gainera barru barruan, agian bizitza guztirako. Eta besteak baino gutxiago ote den irudipen hori kendu nahi badu ere noiznahi gogoraziko zaio bizitzan, kalera zerbaitetara jeisten den bakoitzean. Irakaskintza horren aldrebeskeriak ikusteko ez dago inongo Unibertsidadera pedagogia ikastera joan beharrik, noseki. Egiazaletasun eta zentzun piska bat aski dira.

Besteak beste baserriko umeak etxeko lanaren eta urrutitasunaren zailtasunak aurkitzen ditu eskolara utsegin gabe joateko.

Ez du baserritarrak, agian, behar bezain begi onez eskola ikusten, nolabaiteko ongi etorria egin bait dio aurretik eskolak. Eskolak tratu txar asko eman dio baserritarrari eta alferrikako gauza asko buruan sartu.

Halere badu baserrian bizi behar duenak beste edonor hainbat ikasteko eskubide eta premia. Hortarako irakaskintza gaiez eta eraz berritu behar zaio. Ikasteko behar dituen diru-laguntzak eskuratu behar ditu. Inorentzat baino garestiago da eskola baserritarrentzat. Eskolarako bidea erostu behar zaio bide luzetan eta txarretan ibil ez dadin. "Gau-eskolak" eta "nekazari-eskolak" ugaldu eta arreta aundiagoz artu behar ditu. On zaio hango eta hemengo nekazari-molde eta tresna berriak ezagutzea ere.

Nekazarien arteko eskolak nekazarien zerbitzuan egon behar du. Nekazaria ezi eta gizondu beharko du. Orduan bakarrik aitortuko du "eskolak salbatu duela".

BELDUR ETA POZ ALDIA

Puntu banatzaile askoren artean, inoiz bateratzaileak ere sortu ohi dira.

Egunetik egunera aldatzen ari den gizartearen zer araudi beharko luketen galdezka ari dira sendagileak nazioarteko beren batzarretan.

Filosofok ere egin ohi dute beren symposium edo biltzarra. Pentsalaririk behar ez duen eta pitxiak eta sellu biltzaileak maiteago dituen gizartearen zer etorkizun lezaketan galdetzen diote elkarri.

Orobat ekonomilari eta legegizonek ere, galdera bera egiten dute eguneroko lan-sari eta irabaziez ahazturik. Baina nor nahi du izan, txahal gizenari ahal duen etekinik onena ateratzen saiatzen den arakinen antzera, batzuk eta besteak estuasunetik atara ahal izateko, ahal den diru-ordainik potzoloenaren truke noski, legeak buruan sartu eta sartu jardungo den gizon? Ez du onartzen egoera hau bat ere barrurik duen gizonak.

Beren araudiaz galdetzen dute apaizek ere. Sendagileak ez du errezeta egile iza izan nahi, legegizonak ez du legearen marritatik ondo baino hobeto ezagutzen dituen legelari iza izan nahi, filosofoak ez du inor kezkatzen ez duen jakinduria baten irakasle iza izan nahi. Orobat apaizak ere ez du elizkizun-gizon iza izan nahi gizartearen.

Bere buruz galdetzen du Unibertsidadeak ere. Ez du, ordena zainzaileen ardurapean, denbora pasa, utsaren urrengo gauzetaz, arduratzen diren gizonen leku izan nahi.

Mundu guztia bere buruz galdezka ari dela dirudi. Bakoitzari gizartearen zer leku dagokion aztertzen ari dela dirudi mundu guztia. Bai zera. Badira ezertxo galdetzen ez dutenak ere. Ezin bait dute galdutu ere. Bizitza ematen die nahiko buruhauste. Fabrikako adarra entzuten dutenean sarrerako txartela ordularian ipintzeko antxintxika joaten diren langileak dituzte. Eta hauen artean ere beren egoeraz galdera sortzeko arriskua nabari badute, sendagileek, legegizonak, apaizek, unibertsidadeko jendeak, egingo dituzte erantzunaren eske dagoen galdera sortu aurretik berai itozteko bideak. Hauek denak zera ahaztuzten dute: galdera bat sortzen denean, radikalizatu egin behar dela, erantzuna aurkituko bada. Eta galdetzen ez dutenean, sakontzen ez badute, galderagileen galderak ez du erantzunik izango.

Izan ere, azkenean, gizartearen dago ere zalantzan jarria. Dirua edukitzea eta gehiago egiteko eran moldaturik eta oinarritzko irizpide bezala emankotasuna edo rentabilitatea jarririk, gizonak garestixeago edo merkexeago bere burua saltzen duen gizartearen jaitzen da. Eta nor bere burua saltze hau, giza-izatearen egiteko nagusi, baina ez bakarra den lana, saltzen denetik asten da.

Galdera egiten duten guztiak nahi dute galdera horrentzat erantzuna aurkitu. Galderak berriz, indartsua izanik, ezaugarri eta zantzu berdintsuz markatzen ditu erantzun guztiak. Erantzunak ez dira berdinak izango, oso desberdinak nahi baduzu. Aundia eta sustraikoa izango da elkarren arteko ezin uztartua eta aldea. Baina ezaugarri berdinak izango dituzte. Ematen den erantzuna ematen dela, zalantza izpirik gabea izan behar du. Erantzunak borobila eta osoa izan behar du, arazo guztien erantzun izango dena. Korapilo guztiak askatuko dituena. Gaitz guztiak sendatuko dituena. Zalantzarik zirikitu guztiak itxiko dizkiona. Beste erantzun guztiak badaezpadakotzat eta txartzat jotzen dituena. Beste erantzunik ez ditekete. Beste guztiak okerrak, txorak, inozoak eta «etxe-alderakoak» dira. Galdegileen erantzunak dituzu soilki. Galdetzen ez dutenei, galdetzen ere uzten ez zaie, hoienei ordez galderaren debekatzaileak berak ematen dizkien erantzunak dira. Halere, galdetzen ez dutenei begiak irekitzearen eta berauek esnatzearen egiten dute galdezka ari diren guztiak, baina beren galdera eta erantzunaren araberan jakina, eta ez haien arazoaren araberan.

Honela, liburuxka batzutan es-

kaini daitezkeen dogmakeria batzuk asmatuko ditugu. Galdera guztien erantzuna duen Elizaren dogmakeria sortuko da. Zalantzarik gabeko egia osoaren jabe bait da.

Dogmakeria honen aurka molde jakineko zientziakeriaren dogmakeria sortzen da. Zientziaren erakutsiak bakarrik onartu daitezke. Mundu guztiak onartu dezakean bidezko gauza hauxe noski. Baina hauen dogmakeria hontan dago: berauek bakarrik direla zein den zientziako egia erabaki dezaketen baldintzak jartzen dituztenak.

Berauek ezarritako baldintzapean eta neurrian ez datorren erakutsia ez da zientziakoa, ez da onartu behar. Inkisizioa teologiako dogmakeriari sortu zuen. Hemen ere beste bat sortzen da: zein den zientziakoa eta zein ez erabakitzen da eta erakutsi baturri zientziaren ikurra eta txartela ukatzen zaie eta besteri eman.

Joera berri bat bi dogmakeria hauen aurka. Ez da aski mundua ezagutzea, aldatu egin behar da. Itxurazko arrazoiak hau ere 1973garrengo gizonentzat. Baina hauen dogmakeria hontan dago: berauen molde eta bideetatik bakarrik egin behar dela azterketa eta aldaketa hori. Hemen edo dogmakeria guztietan bezala itsumena eta jauntxokeria gailentzen dira.

Baina oraindik beste margo bat behar dugu argazkia ondo osatze-

ko. Dogmakeriaren aurkako dogmatikoak ditugu. Ezerk ez du merezi. Bizitza joko bat da. Bietatik dute erakutsi guztiak, gezurretik eta egiatik. Bizitza nahiko eroso du tenen axkarkeria dugu. Beste gizonen egoerak, nekepean, oinazez, goserik edo giltzapean daudenen egoerak axolarik ez dienen axkarkeria. «Miserikordiazko obrak» egiaz jolastuko dira agian. Baina arazoa lehenean datza. Ez dago ihes egiterik. Ez dago zerutik jetikoz zaigun manaren zai egoterik. Ez digu aingeru batek edo erregegai dotore batek erantzuna ekarriko. Guk bilatu eta aurkitu behar dugu.

Burruken zurrunbilan murgildu behar dugu ezpairik gabe beste gizonekin fidatuz. Inor baztertu gabe. Inor zulo jakinetik ikustera behartu gabe, aske utzi, leihatila denak irekirik ditugula bakarrik ikus bait dezakegu guztia.

Eriotza garaitua izan bada gaitza ere menperatua izan da. Eta guk, eriotza garaitu zuen Arekin, bat eginik, edonondik zipoka ari zaigun gaitza ere menperatuko dugu.

Gizonak kutsatzen duten gaurrengoko egoera eta giroa onartuz bakarrik bilatuko dugu arazoentzat erantzuna. Eta ez gaitzala beldurrrak menpera bestela gizonak baztertzen dituen dogmakeriara joko bait dugu nahitaz.

MUGERZA

GAURKO POZA BIHARKO MINA

Iluntasunean garbi ikustea oso zaila da. Dena dela ez da oraindik urtea Donostian «Txuri-Urdin» izotz Jauregia zabaldu zela.

Ikusmiran joan ginen egun batez bertara.

Jolasean zebiltzen Donostiako mutil batzuk. Hauekin batera Frantziako eta Amerikako beste zenbait, erakusle bezala. Hemengoek bezekiten izotz gainean ibiltzen baina ozta-ozta, doi-doi.

Geroztik, ordea, itxura denez asko ikasi dute. Tebistak zioenez ligako eta kopako txapelkun atara dira. Hau da, bi txapelketa izan dira eta bietan donostiarrak irten dira txapelkun.

Itsuen herrian begi bakarra errege delako agian? Baditeke. Baina egiaz poztzen gara bi txapelketa hoietan irabazte atara direlako. Zorionak beraz denoi.

Baina ez da nere asmoa izotz gainean irabazi duten txapelketaz mintzatzea. Gure mutilak irabazte irten zirela tebistan ikusi nuen pozez eta aldi berean goibel geratu nintzen.

Kirol hori berria da gure artean. Aurten Bilbaon jarriko dute. Berria izanik ere gurek izan dira onenak. Baina ez gaitzei harrotu. Laster sortuko dira gurea baino ekipo hobek. Eta ez norbaitek uste dezakean bezala gu hasieran bizkorrek baino gerora alferrak eta iraupen gutxikoak garelako.

Gu ginen onenak futbola hasi zenean. Sortu zen atletismoa. Bost edo sei euskaldun han ikusiko genituen Espainiako ekipoa osatzen. Gaur ere ikusi ohi dira euskaldunak, baina ez gure ekipotan dabil-tzanak.

Sortu zen balenestea. Laster eraman ziguten gure artean onena. Bilbaon jaitoa ez bazen ere hor hantzia eta hor jokalarik egin bait zen.

Balonmanoan berdin. Horregatik jarri nintzen alai bezain goibel donostiarrak txapelkun genituela jakin nuenen.

Ruby-n ere laster hasiko dira beste gauza guztietan bezala txanponaren soinuk. «Txintxin, txintxin, diruaren otsa». Bekak edo soldadak direla eta beren herriatik aterako dira gure artean hazitako mutilak. Nora? Txanponaren hotsa entzuten den lekura.

Izan ere ez diruak eta ez aristokratziaren odolak ez dute mugarik. Alde guztietan atzeritar, baina alde guztietan jaun eta jabe. Eta diruak jotzen duen doñuz denok dantzan egin beharko dugu.

Diruak dirua eskatzen du bere alboan. Eta diru mordoxka dagoen tokian berehalaxe ikusiko ditugu dirua pitlatzen eta diru-etxeak jasotzen.

Baina diruak behin ere ez du nahikorik egingo. Oraindik ondotaratu ez zaion diruari ere etengabe dei egingo dio. Azkeneko bazterrean dagoen xemeiko edo xoxa ere zurrut egingo du. Hortarako lehenik gizon batzuk bereganatuko ditu. Gizon hoiene bidez eramango dute diru berria.

Gizonak eta beste gizonen gizatasunak diruaren bitartez bereganatuko ditu. Horrela hustuko dira herriak, bai gizon aldetik, bai gizonak gizonduko errealdade aldetik. Horrela puskatuko dira herriak. Aberea arto-kaxkarraren ondotik bezala joango da dirua ere diruaren atzetik. Eta diruarekin batera diruaren iturri diren gizonak.

Zoritxarreko eta beharrezko dirua!

Behin herriak hustuz gero bai diru aldetik eta bai gizatasun aldetik dantza arin arin hasiko da. Gure artean sortzen diren gizonik trebeena diruak bere ondora eramango ditu.

Eta onenen ondoan jarriaz gero diru gehiago eskatuko dute. Gu beruntz, haiek goruntz. Hori ikusiaz gure indarrak ere galduz doazela dirudi.

Baina diruak indar asko izanik ere bere indarra du, indar neurria. Eta guk motelenok eta dirugabeok geldi arazi dezakegu elkarturik abiada hori. Dirua edukitzeak bere indarra ematen du. Baina ez edukitzeak ere eman bizake indarra eta askatasuna abiada hori desegiteko elkartzen bagara.

Orduan, geure urtean sortutako gizonak eta gizonak asmatutako gauzak beren lurrairekin eta beren anaia gizonekin bat egindakoan, diruaren hotsari jarraitzeko ordez, askatasunaren eta gizatasunaren doina entzun ez ezik jo ere egingo dugu.

ARANEGI

Zeruko ARGIA

Zuzenadaria:
MIREN JONE AZURZA
ARISTEGIETA

Nafarroa-Kantauri eta Aragoiko Kaputxinoak argitaratua (Kale Nagusia, 50-1.º Burlada-Pamplona).
Donostian: Okendo, 22
Tel. 42 66 66

ARRIDE SARIA:

BARRUAN	300 pezeta
Korreo batasunetako errietan	350 pezeta
Atzerrietako beste errietan	370 pezeta
Aldez	Aurrez galdetu

Salmetan (ale bakoitza) 7 pezeta

Irarkola:
«Gráficas Navasal»
A. Adoain, 1 IRUINEA
D. L.: NA. 80-1963

EGUN EGUNEKOA

Ikastolaren inguruan «aurrerakoi» hoietakoko asko dugu aski ongi dakizutenez.


«Aurrerakoitasunaren» izenean beti kritikatzeko ari dira ikastola, burges, atzerakoi eta ez dakit zenbait gauza dela esanaz.

Hain «atzerakoiak» baldin badira ikastolak, zergatik ez dituzte pakean uzten eta teknika eta irakasle «aurrerakoiak» hartuz, ez dute ikastola «aurrerakoi» bat egiten?

Benetan gu pozik egongo ginake eta Herriarentzako mila aldiz onuragarriagoa izango litzake.

HARANZABAL

Udako geldiuaren ondoren, berriz, urrian eta azaroan izanen dira Araba eta Gipuzkoako dantzei buruzko hitzaldi eta saioak.



TOLOSAKO HAMABOSTALDIA

Aurrera doakiguen Tolosako Euskal Kultur Hamabostaldia. Hona hemen bigarren aste-ko programa, ahalik eta laburren, oroikarri gisa, soil soilik: Hilaren 14ean., arratsaldeko 8,30etan. eta Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalaren aretoan, Mikel Ugalde Euskal Herriko langileia eta industrigintza mintzatuko da.

Biharamunean, iluntziko 7,15 eta 10,30etan., Caro Baroja anaien Nafarroa: Lau haroak deritzan dokumentua hirugarren agertaraziko da Leidor Zineman.

Hilaren 16an., arratsaldeko 8,30etan. eta Aurrezki Kutxa Munizipalaren aretoan bertan, Xabier Unzuurrungaga arkitekto zarautzarrak Gipuzkoako Hirigintza eta Urbanismoa delako gaia aztertuko du.

Hilaren 17an., berriz, ostegun arratsaldeko 8tan. eta Igarondo aretoan, gaurko euskal artistarik nagusien agerraldi bat muntatuko du Nestor Barrenetxeak, diapositiba, magnetofono eta beste baliatuz.

Hilaren 18an., arratsaldeko 8,30etan., Aurrezki Kutxa Munizipalaren aretoan, Xabier Kintanak Euskararen Batasuna Bizkaitik begiraturik aztertu eta azalduko du.

Larunbatean, Urdañ-Txiki Biltokian eratu den afari batez, I Tolosa Sariaren azken erabakia jakinaraziko da. Epai-mahaia Emeterio Zaldibia, Anjel Lertxundi eta Joseba Inxausti jaunek osatzen dute.

Igandean, berriz, azken eguna, euskal folkloerari buruzko eguna hain zuzen. Goizean goiz txistularien kalejira. Ondoren Herri Meza, eta eguerdian Zikiro-jana.

Arratsaldean, "Mutil-Dantza", dantzari jaialdia, kalejira herrian zehar eta trikitixa non-nahi. Iluntziko 9tan., Arte Erakusketaren eta Euskal Kultur Hamabostaldiaren amaia. Ongi izan. Datorren urterarte.

GEREDIAGA 73 Mahai gainean dugu ere Durango eskualdeko Gerediaga Elkarteak bidali digun azken aldizkaritxo, apirilko alegia. Hiru sail ditu nahiko bereziak: Atarte, Buru Batzar Barria eta 1973 urteko Egitaraua.

Lehenbizikoan zenbait burutapen egiten da, 1965 urtean Gerediaga Elkarte hau sortu zenetik izan duen abiada eta harrera ona, eskualdeko agintari nahiz laguntzaile eta herri-tarren aldetik. Ondoren, oisailaren 25ean, ospatu zen Batzar Nagusian izendatu zen Zuzendaritza berriaren zerrenda aipatzen da, Jose Ignazio Alberdi Zuzendari delarik, bai eta Durango eskualdeko herrietako arduradunak ere.

Hirugarren saila, aurtengo egitarauari dagokiona, irakurlearentzat intesgarriena dugu segurutzat, bertan azaltzen bait da Gerediaga Elkarteak 1973 urterako pogramaturik dituen batzar, saio eta jaialdiak. Hona hemen, ahalik eta laburren ere:

Ekainaren 10ean. IX Merindade Eguna eta Batzar Nagusia Arrazolan.

Ekainaren 24ean. IV Ikastola Umeen Eguna, Berrizen. Uztailaren 15ean. III Pintura Lehiaketa Abadianoko Mandiola hauzoan.

Uztailaren 22an. VII Ezpatadantzari Eguna "atx-osteko" Otxandianon.

Uztailaren 25ean. IV Merindade Argazki eta Diapositiba Lehiaketa Yurretako Orozketa deritzan hauzoan.

Abuztuaren 15ean., Mallabian, II Idazlehiaketa.

Irailaren 2an. III Gaztetxoan Eguna Izurtzan.

Irailaren 16an., Garayko Santa Katalina hauzoan, VII Artzain Zakur Lehiaketa.

Azkenik, Azaroaren 1, 3 eta 4ean., ohi denez, VIII Euskal Liburu eta Diskuren Azoka eratu da Durangoko Tabiran.

Horrez gainera, aurtin eratzeko dira ere I Arkitektura Ihardunaldiak. Elorrioren eratu omen dira, ez jakin, ordea, noiz.

Irakurleak izan dezake nork bere iritzia egitarau honetaz. Dena den, uka ezinezkoa zera da, gerediagarriak antolatzaile onak ditugula, gauzak denboraz egiten dakitenak. Eta hone-lako dohairik ez da erruz azaltzen euskaldunen artean. Badugu, bai, non ikas gainontzekook.

BESTE ZENBAIT BERRI

Irakurleak dakikeenez ere, Donostiako "Goizaldi" dantza taldearen hogeita bost urte betetzen direla eta, eratzin ari dira Gipuzkoako Diputazioan zenbait hitzaldi eta dantza zaio.

Otsailean hasi eta hilero hilero izan da hitzaldiren bat, hala nola otsailean Iztetaren Dantza-moldea (Gaizka Barandiaran), martxoan Baztan ibarreko folklorea (Patxi Arraras) eta apirilaren Zuberoako Dantza Herrikoia (Iñaki Urtizberrea), hitzaldi bakoitzean "Goizaldi", Arizkun eta Mauleko taldeek beren dantzen agerraldiak egin dituztelarik, hizlarien esanen adiarazarrig.

Maiatzeko hitzaldia, berriz, hilaren 18an. izanen da, Bizkaiko dantzei buruz, edo, hobeto esan, Durango eskualdeko dantzei buruz. Hizlari Iñaki Irigoien, eta dantza agerketa Yurretako dantza taldeak eginen du.



BETIKO BETIKOTAN Jakin dugunez euskaltzain laguntzaile batek eskari bat egin berri dio Euskaltzaindiari, zoriarekin "h" erabat baztertzeko erabakia har dezan (erabakiek balio badute, zertan gabiltza?). Agiri horretan esaten denez, hamar euskal editorial bat omen datoz asmo honekin, eta eskari hori indartzuz beren izenak aipatzen dira, hots: AGUR, AUNAMENDI, AUSPOA, EDICIONES SAN ANTON, EDILI, EKIN, GOIZ ARGI, ITXAROPENA, LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA eta LOPEZ MENDIZABAL.

Oker ez bagaude, eskari horri Aita Villasantek erantzun dio, 1920 urtez geroztik Euskaltzaindiak mailaz hartu dituen erabakiak azalduz, eta behin eta berriz frogatuz, hizki horren arazoa ez zela batpetean Arantzazun sortu, azken berrogeita hamar urteetako Euskaltzaindiaren asmo eta izpirituari jarraituz baizik.

Baina, diogun, Euskaltzaindiaren "izpiritu" eta iritziaz gain, erabaki hoik euskaldunen gogoko ote? Harrera onik izan ahal dute herriaren? Ezetz dirudi zenbaiten betiko betiko idazlanak ikusiz gero, eta are gutiago goraxeago aipatzen den euskal editorial zerrenda hori irakurri ondoren.

Hala ere, dakigunez, Euskaltzaindiak zuzenki galdetu dio hoiak zenbait editoriali eskari horretaz, eta bik, gutienik, ukatu egin dute eskari horrek diogenekin bat datozela. Beraz, zer indar eman dizaiokegu horren eskari ustel bati? Eta, bestalde, nola ausar daiteke inoren izena baimenik gabe erabiltzen?

Bada besterik, zer dela eta ia euskarazko libururik argitaratzen ez duten editorialak zerrenda horretan aipatu? Eta hain zuzen, zenbaitetik ez euskaraz eta ez erdaraz azken urteotan. Zer buru gabeko joko da hori.

Eta hemen dago, inon egotekotan, arazoaren karkoa. Zeren Euskaltzaindiaren erabakiak gutiasten ez dituzten editorialak gutiagi balira ere (eta ez dira, ANAITASUNA, CINSA, EGAN, ETOR, ETORKIZUNA, EUSKERA, FONTES, GERO, GURE HERRIA, JAKIN, IKER, IRAKUR SAIL, IRASLEEN LIBURUTEGIA, LUR, PRINCIPE DE VIANA, REDENCION, TXISTULARI, ZABAL, ZERUKO ARGIA...) uka ezinezko gauza zera lizateke, hau da, Euskaltzaindiaren araudiak jarraitzen dituzten idazle eta editorialetan emaitza askoz ere ugariago dela. Hona hemen bestela, estadistika soil bat, Juan San Martin Euskaltzaindiko idazlariak urtero egin ohi duen euskal liburu zerrendatik hartua: 1968 urtean, Arantzazuko erabakiak hartu ziren urtean, berrogei liburu argitaratu eman ziren euskaraz, eta sei bakarrik hatxez idatziak. Iaz, aldi, 1972an. alegia, berrogeita hamasei liburu atera ziren euskaraz, eta hogeita hemeretzi hatxez, hau da, hamazazpi hatxerik gabe.

Txarrena da "h"aren hauzia agortzen ari zaigula, eta laster ez dugula jakinen zertaz hitzegun edo zerez aldizkariak bete. Baina, zoriarekin, beti agertuko da saltsaren bat edo beste eta aldizkariak nola hala beteaz gainera, gauzak aztertze baina pertsonak iraintzeko balioko dute.

Goaz goaz, ezker eskuinez, gure etnikarrik eza gero eta nabariago azaltzen.

TXARA PELOTARIA

Hara non goiz erdian izan dudun ustegabeko bisita. Euskal arlotan ari direnen bisitara ohitu samarrak gaude, baina, horregatik... pelotaririk ez zaigu egundaino etorri gure ate ondora.

Hara ba non lehena, "Txara" pelotaria Irundik Eibarrera gu ezagutzera propio etorria. Tira, gu edo, hobeto esan —ez bait da berdin— "Amatiño" ezagutzera. Eta ez idazle-irakurle arteko harremanegatik soilik, "Txara" eta "Amatiño" base-riak elkarren ondoan daudelako Bergarako lurraldeetan baizik.

"Txara" pelotari bergararra erabateko gizona dugu, eta adinez gora badoa ere, amaikatxok baino izpiritu gazteago du. Bizimodua ez zaio beti erraz gertatu, eta mortalak eta bi jasan behar izan ditu behin baino gehiagotan.

"Txara" baserriko seme izanik, gazterik erakutsi zuen pelotarekiko zuen trebetasuna, eta pelotari izatea gaur den baino zailago ziren sasoiari jo-ta-ke ihardun zuen, Atano III, Gallastegi, Harranbillet, Kortabitarre, Mondragoeko Ezkerriarra, Iraeta Txikia eta beste edozein nagusiki ari zirelarik.

Haiekin jokatzera ez zen inolaz ere erraz, hala ere, aipatu guztiekien jokatu zuen gure "Txara" atzelari nekagaitza, bai eta irabazi ere, binaka, ez gutitan.

Geroztik, pelotak ez bait zuen orduan egun hainako errentarik, lan egin behar izan zuen gure bergararrak, eta satsaren pare egin ere. Ipar Euskal Herrian ihardun zuen barkotako kargatzaile bezala eta sasoi hura ez zitzaion batere eroso gertatu. Langileriaren huelgatan ibilia, muga arteko hauziak sakonki ezagut eta bizi ahal izan zituen.

Garai hartako burruken ondorioak nabari dira egun "Txara" pelotariaren. Gizon leial, ireki eta aurrerakoa, asko ikusia eta gehiago ibilia. Euskal irakurle amorratua, bestalde, era guztitako liburuak erosten dituen, bai eta irakurri ere, kiki-miki aspergarriak alde batetara utziz. Izan ere, nork uste lezake duela hogeita hamar urtetako pelotari batek Eusebio Osaren "Pedagogia eta Gizartea" irakurriko zuenik, eta hartaz hitzegiteko prest egonen zenik?

Haatik, ez da pelotaria lainotan galtzen den hoiak. Beste alderdi batez, euskal kirolak errotik ezagutzen ditu, eta gure kirolariek plazaz kanpo jasaten dituzten azpikeriak eta sari gabeko azken ondorioek biziki kezkatzen dute gure "Txara" bergararra.

Iñazio Altuna, "Txara", Irunen bizi da egun, oraindik inolazko omenaldirik eskaini ez dion sorterritik urrutit samar. Izan ere, ez gara gu orain merezimenduen gonbaraketan hasiko, ez eta behar ere, Bergara herriak ez bait du sekula horren mailako pelotaririk izan, eta guti —benetan guti— euskaldungoaren barrena horren murgildurik dagoen bere adin-eko gizonik.

Dena den, uste dugu, bai, gizon handi bat ezagutzeko beta izan dugula. Gu ezagutu asmoz etorri, eta hara non guk geuk bera deskubritu. Hurren arte, ba, "Txara", orain badakizu non bizi naizen eta, egin zaidazu bisita.

ITSASOA UR-BAZTER LUZEA DA

Izen bereko nobela labur bat eta hiru ipuinek —"Lohiezko bide zaharra", "Ijitoak" eta "Jesus haurra jai da"— osatzen dute Itsasoa Ur-Bazter Luzea da Martin Ugalderen liburua, GEROK argitara emana.

Liburuxka honek gauza on asko du, bai eta txarrik ere, edota, hobeto esan, penagarrikeria ere. Alde batetik literatura soil soil da, literatura hutsa alegia, eta honek badu aparteko meriturik literatura zer den eta zer ez den takian potian entzuten den garai bitxi honetan. Ardo tantan bat edanez, edozein iluntze edo igande arratsaldetan irakur ahal izateko liburuak behar ditugula zer den ohi da sarritan. Hona hoiakoa bat. Liburuxka irakurteraz, aspergaitza, prosa dotorea, hari eramangarria, kritikariaren ez baizik irakurle soilaren arreta iraurarazten duena.

Egilea, Martin Ugalde, arras ezaguna dugu, bestalde. Landua du Euskal Herrian inork ez bezala kazetaritza. Nobela-gintza ez zaio arrotz, are gutiago Hego Amerikako "nobela berria" hurbiletik ezagut ahal izan duelarik. Giro honetan, eta hala beharrez edo, landu ere erdara euskarra baino gehiago landu behar izan du, eta, hain zuzen, liburuxka hau gaztelaniaz burutu du, euskal itzulpena Dionisio Amundaraini zor diolarik.

Penagarri bada ere, gure uste apalean honek ez du esan nahi —zenbaitetik esan bezala— "literatur obra egiazko batek behar duen gauzarik printzipalena falta duela, hots, egileak berak moldatua izatea". Nobelagintza nahiz beste edozein literatur motaren sorkunde lana hizkuntzaren gainetik zegoela uste genuen. Behar bada, liburu honetaz ez dugu ahal izanen Martin Ugalderen "euskarra" azter, baina, agian, ez da hori izan nobela eta ipuin haur argitaratzean arduradunek izan duten asmo eta helburua. Hizkuntzaren morroi gara sarrigi, literatur balioa baino egilearen "euskarra" eztabaidatzen ihardun ohi dugu.

Besterik da, tamalez, Euskal Herrian dugun horren maila idazle batek bere literatur-muinaren jaioa euskaraz azaldu ezina. Baina, pozgarri da, aitzitik, idazle berberoren notasan eta kontzientziak jabetzea, gaztelaniaz argitara bait zekateen inork euskaraz zezan eskaini zuen emaitza. Balantzatan jarri gero, ez dakit nik neuk zein alderdi den aipagarriago.

Gure Herri egoera arrarotan dagoenez, gertaera arraroak azaltzea ez dateke batere harrigarri, liburu honen edizioa lekuko. Dena den, irakurleak garen, euskal irakurleak hain zuzen, betoz Martin Ugalderen bezain liburu atseginak, eta sortzailek ez dugun artean itzul ditzaigutela bestelakoak. Mundu honetako naziorik gehienetan obra itzuliak izan o'i dira "beste-seller". Ez dugu, antza, oraingoan ere ezer berriarik asmatu.

LABUR LABUR

Esan bezala, apirilaren 29an. eratu zen Euban urteroko Haur Kanta Lehiaketa, bi sailetan banaturik. Zazpi urtetatik beharokoan artean Bermeoko Irantzu Telletxea atera zen irabazle. 7tik. 15erakoan. artean, berriz, Arantza Gabiola, berau ere Bermeokoa. Neskatilak nagusi, nonbait, eta biak "kostaku" gainera.

● Maiatzaren azken astean edota ekainaren lehenengoetan omenaldi bat eginen zaio Bilbaon Segundo Olaeta zenari. "Euskal Dantzari Biltzarra", Euskal Herriko Txistulari Elkarte eta Olaeta Dantza Taldea omenaldi hau egin asmoz ari dira.

● Uztailaren 26tik. abuztuaren 2ra. arteko zortzi egunen buruan eratzeko dira Donostian XII Nazioarteko "Folk Music Council" izeneko folklorea ihardunaldiak. Batzaz beste berrogeiren bat naziotako taldeek hartuko omen dute parte.

● Plazentzian Harma Lantegia sortu zela lauhun urte direla eta, zenbait jai eratu omen da Plazentziako zuloan bertan uztailaren azken astean. Halakoren batetan plazentziarrak espabilatu bide dira, eta denetarik izanen omen da "Santixo" eta "Santana" inguruan. Tanborrada ("kaxagiñak", "baskulagiñak", "txispagiñak..."), harma zaharren erakusketak, haur idazlehiaketa, hitzaldiak, txistulari eta dantzari bilerak, euskal liburu eta diskuren azoka, harrijasotzaileak etab. etab.

● Luis Iriondo azkoitiarrak Bilbaoko "Mocedades" taldeak ezagutarazi duen Eres tu delako kanta aski ospetsua euskaratu berri du. Honako kanta hau Alonsotegiko "Gure Ametsa" haur taldeak kantatuko omen du, bai eta dagoeneko grabatu ere.

GORKA KNÖRRI ERANTZUNEZ

Agur lankide prestu hori: Martxoaren 18an agertutako artikuluan niri buruz idatzi dituan lerroak irakurri dizkiat; eta izkribuak ikutzen duen gaiaren larritasunak artikulua bat (eta gehiago ere bai) merezi baitu, gutun agiri hau bederen egitera deliberatu nauk.

Hona hemen hire hitzak: "Arazo hau beratu gogoratu dit duela guti Larresorok Amilcar Cabral ginear abertzalearen heriotzari buruz idatzitako artikulua; guti gora behera (ez bait daukat eskura haren artikulua), honela zion Larresorok: "Amilcar Cabral ginear abertzalea zen, ezen ez portugaldarren etsaia". Ez da oso azkarra izan behar hitz horiek esatean Euskalerriko arazoa duela gogoan. Izan ere Portugaleko langileak eta ginear abertzaleak "anaiak" dira; izan ere, USA-ko langileak eta Boliviako langileak interes berdiñak dituzte. Ja!"

Hots, neure artikulua goitik behera berriz irakurri ondoren, hauxe besterik ez diat ikusi hire esanen funtsagarritzat (horrelakoren funtsagarri izan badaiteke behintzat):

"Lisboako Unibertsidadean ikasle izana, Cabral-ek PAIGC abertzale alderdia sortu zuen, honen helburutzat "Guinea-Bissau" horren askatasuna jarriaz. Abertzaletasunak, horrela, anti-kolonialismoa eraman zuen; eta Portugalen kontra iskilutan altxatzeraino ere bai. Baina, axaleko itxurez bestalde eta portugaldarrek berek orain aitortzen dutenez, Cabral ez zen berez anti-portugesa, gineatar abertzalea baizik".

Ados garena gauza ageria duk. Baina, oso gogoko dudana kezka horrenatik, nik idatzi ez dudana somatu duk hik ene lerroetan; eta azkarregi, hortaz, ez zegoena salatu duk.

Azter dezagun arazoa. Alfredo Margarido-k izkiriatur, oso artikulua irakurgarria zekarrek Martxoak "Espirit"ek A. Cabrali buruz (ikus "Espirit", n.º 422, 741-745 orr., 1973-III).

Osoki ezkeriar eta sozialista agertzen duk Cabral. Eta honen bilakabidea, hain zuzen, batek edo bestek pentsa dezakeenaz bestalde, oso interesgarria duk guretzako.

Bihozkadaz abertzale, Cabo-Verde-ko "Claridade" aldizkarian parte hartu zuen ikasle garaian, kultura hustaren mailan jokatu nahi izan zian.

Ijenerutza ikastera Lisboaan joatean, herriz, bide hura oso laga; eta marxismo-leninismo abstraktoaren bolatirik igaro huen. Hau dela-ta, bertan iraungo ez bazuen ere, nunbait hik salatzen duan sasi-anaitasun horretan sinetsita, portugesa Komunista Alderdian sartu huen (= "Cabral fait aussi un passage dans le Parti Communiste portugais", 742).

Laister irten huen, ordea, berriro. Eta ezin baztertzeko duk, Cabraleki, honi buruz, Ben Barkarekin duen antza: biek ezagutu zirenen erresuma kolonizatzaileko K.A.-aren tentaldia, eta, egia ezaguturik, biek gauditu zirenen.

Hain zuzen ere, Margaridok ongi azaltzen duenez, Ginea-Bissau-ko egiazko indarrak eta joerak aztertu ondoren, gero eta urrunago joan huen Cabral, klase hutsezko jokalari "klasiko"etatik. Hitzek hitz kopiatuko dizkiat artikulua egilearen hitzak: "Encore faut-il savoir quels sont les secteurs sensibilisés et mobilisables de la population. Dans cette perspective, la petite bourgeoisie pourra jouer un rôle considérable, quite à se "suicider" en tant que classe dans l'action" (= burgesia txikiak betekizun garantzatsua izan dezake burrukan).

Che Guevara eta Frantz Fanon-enganik urrunduz, bestalde, Cabraleki ez zian sobera sinesten nekazari beltzen iraultza nahian: "Il n'est pas du tout évident que la paysannerie pauvre soit spontanément ou rapidement portée à se ranger aux côtés des révolutionnaires".

Cabral, hortaz, hik gorroto duan ezkerkeriaren zirikaldea ezagutu bazuen ere (gure arteko anitzek bezala), ez huen gineatar ezkerkoi bat, eta ez gutxiagorik ere. Cabral ez duk izan Portugaleko Komunista Alderdiko buruzagi ezagun bat,

Gineako abertzaleen gidaria baizik.

Baina, portugesa imperialismoa gaitzetsiatatik, sozialista zenez, ez zian inongo herri xehea gorroto, ezta Portugalekoa berekoa ere. Hau esan nahi nian neurean.

Nolako anaitasuna daiteke, ordea, Portugaleko langileen eta gineatar abertzaleen artekoa? Hementxe zegok koska.

Munduan kontradizio nagusi bakar bat baizik ez badago, ekonomiarren mailakoa (= la Historia no es otra cosa que la historia de la lucha de clases), eta azken funtsean gainerako kontradizio guztiak, ekonomi-arazotan funtsatzen baldin badira, orduan burruka bakar bat zegok munduan: klase-burruka ekonomiko horri dagokiona. Gauzak horrela ikusiz gero, Gineako abertzaleek eta Portugaleko langileek etsai berbera diate: burgesia. Eta burgesia hori munduan bakarrik denez gero, zapalduko herri guztiak dituk OSOKI "ANAIK". Cabraleki, hortaz, ikuskeria horren arabera, burgeskume gisa jokatu zian; bertako burges-txikiak egin nahi baitzuen abertzale elkarteak, eta ez portugesa ezkerrekin. Ez Cabral eta ez nik gaituk iritzi horretakoak.

Munduan kontradizio nagusi asko baldin badago, berriz, besterik duk. Gaurko egun ez bi bederen (klaseen artekoa eta nazioen, artekoa) oso nabarmenak dituk; eta, zernahi esanagatik ere, elkarren itxura edo ondorio gisa ezin azalduak. Orduan klase-anaitasuna ez duk absolutu bat, nazio-anaitasuna absolutu ez den bezalaxe. Herri batetik bestera bazegok klase-anaitasuna, bai; baina nazio-anaitasuna ere bazegok klaseez bestalde. Eta zein zeini nagusitzen zaien kondaira egoera kontu bat duk.

Klase-burruka nazioak erdibitzen dituen eran, klaseak zatitzen dizkik nazio-burruka ere. Horra hor, egun hauetantxe (Martxoaren amaialdian) Mazedoniari buruz Bulgariak eta Yugoslabiak dituzten istiluak (Greziaren parte erantsi gabe!). Azalpen bakunak azalpen bikunari utzi behar ziolekukua.

Egia osoa dik Memmi tunetzarrak: "La colonisation c'est d'abord une exploitation politico-économique. Mais j'ai ajouté qu'elle est une relation de peuple à peuple, et non de classe à classe. C'est

cela qui constitue, à mon sens, l'aspect spécifique de l'oppression coloniale". (Portrait du Colonisé, 15).

Marxismoa kontradizio bakar baten azalpen bakuna den aldetik, marxista klasikoetan gutxienez, faltsua eta imperialista duk gizarte bikunetan; eta herrialde naziobakarretan argi-iturri izan badaiteke ere (mende luzetan, eman dezagun), herrialde zailagoetan ez zermakik, eta ezin eraman zezakek, imperialismoaren indarketara baizik. Egia honen frogak behin eta berriz emanak dizkiate marxista ortodoxoek mundu GUZTIAN barrera; eta fanatismoak itsuturik ez dagoen guztiak ikusten diate. Etni-arazoa dagoen herrialdeetan, horretara, errezioren harma duk marxismo-leninismoa.

Kakoa, beraz, alde horretatik bilatu beharra zegok, Gorka. Eta kapitalismoaren morrontzan erori gabe bilatu behar. Zaila? Noski! Baina ateka hertsia horretatik kanpora ez zegok deusik onik gure herriarentzako.

Lapurdiako liburu saltzaile batek berriki esan didanez, marxismo-leninismoari buruzko liburuak saltzen dituk gehienik Hegoaldekoen zerbitzutan. Nork irakurri ditu, ordea, ondoko hiru liburu bikain hauek?

—Indianité et Lutte de classes (Herbert, G. Bockler). 1970. Coll. 10/18, Série 7 - 10,00 liberatan salgai. Guatemalako arazoak.

—De l'ethnocide (Renaud, eta beste). 1972. Coll. 10/18, Série 7 - 10,00 libera. Ameriketako etniez.

—Portrait du Colonisé (Albert Memmi). 1973. Coll. Payot 7,60 libera. Frantses kolonialismoaz, Sartrearen hitzurre batez hornitua.

Hiru liburuak, enkas esanen diat, sozialista intelektualek idatziak dituk; eta europarrak ere ez dituk gehienetan. Nork du interesik liburu hauen tankerakoak ez, eta besteak irakur daitezten? Irakurleek erantzun bezate.

Nitzaz nahasi haiz, beraz. Baina hire nahasketa horrek benetan poztu naik!

Hire artikulua oso onak eta argitsuak izaten dituk. Eutsi lumari, etoi!

Hemen duk heure irakurle zindo bat. Eta, nahi baldin baduk, baita adiskide bat ere.

LARRESORO

MARITAIN KRISTAU DEMOKRAZIAREN TEORIGILERIK ARGIENA

Carlos Santamariak

Jacques Maritain-en heriotzak, haren izena, erdi ahazturik zegoena, berriz ere eguneratu du.

Maritain, filosofo fin bat da, eta kristau bezala, are finagotzat hartzen dugu. Haren filosofia errealismo kritikoa da: adimen eta izpiritua-ren jakinduria, izanaren filosofia. Berez tomista da, baina ez nolana hiko tomista. Ez da eskolastiko huts bat, San Tomas-en izpirituan edan duan filosofo modernu bat baizik. Harentzat filosofia ez da ezagutze abstrakto bat, Kant-en «Arrazo hutsa»-ren edo zientista teorien antzera, gizonak, arrazoiak, sinesmena, esperentzia, eta bere indar guziak erabiliaz lor dezakean jakinduria baizik.

Alde honetatik, Maritain-en filosofia «praxis» bat dela esan genezake. Eskapa egiten saiatu gabe, Maritainek, gaurko zibilizazioaren drama osoari arpegia ematen dio.

Ez gera hemen Maritain-en filosofia erakusten saiatuko. Beraren puntu bat ukituko dugu ordea, nahiz eta azaletik izan, Maritain-en politika-filosofia, alegia. Izan ere, Maritain, personalismo eta kristau-demokraziaren maixu izan da bere politika filosofiarri esker.

Gauza bat kontuan izan behar da lehenengo, hots, Maritain-en filosofian guzi aloturik dagoana. Maritain-ek egindako Historiaren filosofia metafisikatik zintzilik dago; politika filosofia bera, moral filosofian zati bat da eta honek Teologiaren argia nolabait behar du; Maritain-ek asmatutako «Moral-Filosofia egokitu» deitzen zan honek, amaika istilu harrotu zuen, sasoi jakin batean, teologo espainiar famatu batek ekiten ziolarik.

Maritain-en politika-filosofiarekiko ideiek ere eztabaida gorriak sortu zituzten orain hogeitamar urte. Batzuek, Maritain herejetzat salatu zuten Lammenais apaizaren okerrak berriz ere berpizten zituala esanaz. Salatari hauen artean Argentinako Menvielle izeneko teologo baten liburuak («De Lammenais a Maritain») eskandalorik handiena hartu zuen.

Beste amaika kontraditoren izan zan Espainian eta Latin Ameriketean ere. Hala ere Maritain ez zan kondenaturik izan, hispanidadearen teologoek igeri eta gaztiatu zuten bezala. Eta bere ideiak, nolabait bederen, Konzilioak onartu zituen, batez ere Erliio libertatearen sailean.

Maritain-en merezimendurik handienetako bat izan da Elizan demokrazia politikaren asmoa egos araztea. Gaurko katoliko jendea ez da konturatzen zer prozesa izugarria izan zan Elizan, Frantziaren Iraultzaz geroztik, politika ideia berriak lijeritzeko. Elizaren gidari gehienak, 1926 urtea arte (urte hortan «Action Française» kondenaturik izan zan) lejitimista ziran. Monarkia absolutuaren eta Tronu eta Aldarearen Aliantza-aren aldeko porrotuak. Herriaren soberania, erliio libertatea, Eliza eta Estaduaeren arteko ententea eta abar, entzun ee ez zituen nahi, maioría horrek. Urte askotan zehar saio pila bat egin zan baina guziek poto egin zuten. Nere ustez, kristau demokratentzat txarrena, kristau jatorrizko libertate politikaren teoria bat ez izatea izan zan. Beren egitearen oinarriak Elizaren kontrako pentsaeran bilatu behar zituzten beti. Iraultza burgesaren libertate konzetua bera («liberté, égalité, fraternité») hartu behar dotrinatatzat. Baina dotrina hau erlijioaz nahiko kontrakoak izan iraultza sasoiaren persekuzio izugarriak eginak izan ziran horrelako libertatearen izenean.

Beraz demokrazia oso gaizki ikusia izan zan Eliz jendearen aldetik eta ez zan modurik izaten ikusmolde txar hau aldatzeko.

Lehenengo saioa «L'Avenir» aldizkaritik sortu zan, Lemmenais, Lacordaire eta Montalambert famatuek egindakoa eta dakigunez tamalezko ondapen bat izan zan. Katoliko intransijenteek tanto bat jaso zuten sasoi hartan. Bigarren saioa, katoliko sozialena, Pio IX aita santuaren denboran egin zan. Lacordaire, Ozanam eta beste batzuk gidariak izanik, «L'Ere Nouvelle» aldizkariaren inguruan. Bigarren saioa honek ere poto egin zuen eta katoliko autoritarioek bigarren tantoa markatu zuten.

Hirugarren saioa apaiz demokrata deitzen ziranena izan zan. Hauek amerikanismoaren sasoiaren. Amerikako katolikoaren libertatea eredutzat hartu zuten. Ondorea huts handi bat izan zan. Hontan «kristau demokrazia» izena erabiltzea ere kendu izan zitzairen kristau demokratei, zeren Leon XIII aita santuak, nahiz eta «liberala» izen, entziklika bat argitaratu zuen «Graves de communi» izeneko, kristau demokrazia, populua eta pobreen aldeko benefizientzia egitea besterik ez izan eta kristau demokrazia izen horri politikako esanahi bat eman behar ez zitzaioala ere erakutsiaz.

Laugarren ondapena, eta azkena, Marc Sangnier-en «Le Sillon» deitua tako mugimendua izan zan. Laugarren tantoa ere apuntatu zuten kato liko eskuindarrek aukera honetan. Nik, kaso guzi hauetara gauza ba ikusten dut besteak beste: demokrazia kristauak demokrazia eta politikari libertateari buruz kristau sustraitiko teoria bat ez izatea. (Hots! Nik e dut esaten ondapen guzi hoi en kausa bakarra hori izan denik). Nere ustez teoria hura Maritainek sortu zuen lehenengoz. Eta esan dugun bezala hau izan da sail honetako haren merezimendurik handiena.

Nerei ritiz Maritan kristau demokraziaren teorigilerik nagusia da. Dotrina honen mamia erakusterik ez dugu hemen. Baina gauza ba esango dugu. Bere teoriaren oinarriak bilatzeko Maritainek ez zuen Frantziako Iraultzaren ideietara jo, Ebanjelioaren izpiritura baizik eta antzina ko San Tomasen filosofia. Behar bada, hau zan kristauak «ghetto»-ti ateratzeko modu bakarra. Batzutan aurrera bultzatzen egin nahi duan, pixka bat atzera egin behar du alde aurrez, beharrezko abiada hartzeko.

TRANSPORTES azkar

ERAMAN - EKARRIRAKO KAMIOI AUNDIAK
Barcelona, Zaragoza, Valencia, Madrid, Oviedo, Gijón.

Donosti'tik egunero:
Iruña, Bilbao, Gazteiz, Jerez de la Frontera, Cadiz, Alicante, Murcia, Cartagena, Granada, Almería, Santander, Valladolid, Zamora, Palencia, Salamanca-ra.

Astean iru aldiz:
Sevilla, Lugo, Coruña, Orense eta Vigo'ra.

Carretera Gral. a Hernani - B.º Ergobia - DONOSTIA
Telefonoak: 450313 eta 459723

Aptdo. 1381
Aptdo. 1381

Ez Merkenak

Bai Onenak!

Janari bidez izaten dira ganadu on, indartsuak, Eta nora jo jakin bear du baserriar burutsuak, Berebiziko aragi pillak; gañera esne putzuak, Oiek guziak berekin ditu Fanderia'ko pentsuak.

FANDERIA

ERRETERI

ERLOJU ETA BITXITEGIA

Eduardo Chopetia

Gotaria 10-Urrut. 417751-Etxekoa. 422700 - DONOSTIA

Lehen - Historia

ISTURITZ-EN

Nafarroa Beherean, Isturitz eta Arberuaren mugan dagoen harzuloa da hau ere. Bi ateka ditu, bata Isturitz aldetik, Arberuaga aldetik bestea. Bien artean leku handia dago eta bitan banaturik, nahiz eta bien artean igaro lekuak izan.

Isturitz aldetik sartuta dagoen lekuari "Isturitz gela" deritza "San Martin gela" Arberuaga aldekoari, herriaren izen osoa Saint Martin d'Arberoue bait da.

Istas gaintetik 209 metroara dago.

LANAK

Giza-aztarnak bazituela 1895-1898 an jakin zen, eta Madeleine aldi zirela gainera. E. Pitte-k aztertzeke asmorik bazuen, asmotan gelditu zen.

1913an E. Passemard hasi zen. Ipar-Euskalerrian egin diren lanek gehienak honek eginak edo zuzendutak izan dira.

Han agertzen hasi zen aberastanuk txunditurik utzi zuen gizona, bai bera eta bai besteak.

Seiren bat metro behera egin ondoren 1923an utzi zituen hanga lanak.

1928-1930 tartean S. Martin gelan ihardun zen, bere emaztea lagun zuela. Zientzia alorrean maiz agertzen dira senar-emazteak elkarren laguntzaile.

1930-1935 tartean René de Saint-Perier ihardun zen Isturitz gelan. J. M. Barandiaranek ere egin du saio labor bat.

Hemengo aztertzaleak, beraz, E. Passemard eta Saint-Perier izan dira.

RELIEBEDUN IRUDIAK

E. Passemard lanean ari zela eta lur-mailak jasotzen orma batetan reliebedun irudiak aurkitu zituen. Pirineo alderdi honetan ez da horrelako besterik agertu, badi beraz bere garrantzia.

Beste arrazoin bategatik ere badi ordea eta ez tikiagoa, lur-mailaz estalirik zundelako. Oso garrantzi handia du honek arte-ren kronologia egiteko.

Ez da samurra labor irudi baten urteak jakitea, ez ihizi, ez lanabes ez beste ezerrez inguratuta ez baitago. Hori horrela, estetika eta bestelako teoriak sortu dira, zein era bestea baino lehenagokoa eta geroagokoa den jakin nahirik.

Isturitzen, ordea, lur-mailaz estalirik zeuden, Madeleine aldiakoak hain zuzen. Solutre aldiakoak ez zuten estaltzen.

Honek gauza bat adierazten digu, Madeleine baino lehen eginak direla. Ez dakigu Solutre aldia baino lehen. Madeleine bera zabala da oso eta ez liguke argitasun aundirik emanen hau jakiteak. Estaltzen zuen lur-maila oso ezaguna da, Madeleine IV aldia, hau askoz zehatzago da.

Estalita aurkitutako irudiak hauek ziren: 120 m. luzeko orein bat, bere gorputzean orein gisako beste bi ihizi dituela. Hartz bat, zaldi bi eta lasterka doan beste orein bat.

ARTE ETA LANABESAK

Isturitz zerbait esan behar eta arte-lanak aipatu ditugu lehenengo; ez da guttiagorako ere. Isturitz munduan horregatik da ezaguna, bere arte ibilkor eta lanabesen ugaritasun eta edertasunarengatik. Arte ibilkorra ormetan egin ez dena da, hezurretan, harrietan, buztinetan, tab.

Ignacio Barandiaranek egin duen lanean agertzen digunez ezin daiteke Ego-Euskalerriko harzuloen ondoan jarri ere egin, bertako maila batek beste harzuloetako maila guzietan baino lanabes gehiago agertzen dituelako. Benetan eraogarria. E.b. Aurignak aldiako mailan 11.010 lanabes agertu ziren, landutakoak bakarrik kontuan hartuta. Printz eta igekiak kontatuz gero 60.000-ira irixten dira.

Hezur lanetan eta arte kontuan batez ere, munduko onenetarik du-

te, Paleolitos haroaren artekoetan noski.

Ignacio Barandiaranek honela dio hitzez hitz: "No creemos exagerado situar a Isturitz entre los mejores yacimientos del mundo para el estudio de la tecnología y tipología del Paleolítico Superior".

JENDETZA

Horrenbeste lanabes aurkitzeak eta hain ondo landuak jendetza eskatzen du alde batetik eta denboraldi luzeetako langintza bestetik. Mailaz maila jarraipen bat ikusten dela dirudi.

Aurignak aldiako mailan ia metro erdiko lur beltz ikatzetsua agertu zen, garai haietako suen ondarra noski. Denbora luzeetako egonaldiaren agerpide inolaz ere. Maila honetan agertu ziren, hain zuzen, lehen aipatutako milaka lanabes haiek.

ZINTZILIKAIK

Madeleine aldiako zintzilikai asko zebilkitea dirudi; ez dakigu noski zertarako edo zergaitik: polita egitegatik, aztikeriaz... batek daki.

Dena dela maila honetan 88 hartz zuluak azaldu zen, 25 eluro-reinenak, 22 azerrienak, 20 zaldienak, 5 oreinenak, tab.

Istas soiberen maskor edo kontxa zulatuak ere agertzen dira: 132 (Littorina motakoak).

Lepautzaiez egindako hezur borobilak ere bai, 50etik gora. Erdian zulatuak eta inguruan dotoretuta.

Anbar-er eginen zituzten, ez maila batetan bakarrik guzietan baino. Anbar-er ari naizenez diogun bison buru bat ere badela anbar-er egin, Goi-Paleolitos haroan ezagutzen den bakarra hain zuzen.

GIZA ONDAKINAK

—Madeleine aldiako mailan kaskezur baten zati bat azaldu zen, ertz bat leun-leun zuela (16.000).

—Aurignak azken aldiakoan (22.000) bi edo gizakien ondakinak

Zaldi, sarrío } Würm
Orein (ugaritu) } bukaera
Elur-orein (gutitu)

Zaldi, Elur-orein, } E. hotza
Sarrío, }
Orein, Orkatz, }
Mamut, saiga }
Rinozeros iletsua, }
Elur-azeri. }

Elur-orein ta zaldiak, } E. pigunketa
gutitu }
Idi-handiak, ugaritu }

Zaldi, Elur-orein } Egursti hotza
Orein, sarrío }
Bison, mamut }
Rinozeros iletsua, }
Saiga, Elur-azeri. }

Zaldi } Egurasti biguna
Elur-orein, orein }
Idi-handi }

Zaldi, elur-orein } Egurasti hotza
Orein, mamut }
Rinozeros iletsua. }

Orein } Egurasti biguna
Idi-handi }
Elur-orein }
Rinozeros iletsua }
Leize-hartz, hiena }

agertu ziren: 18 kaskezur zati, 4 masail-hezur zati, hortz batzuk eta Ukal-hezur zati bat.

—Goi-Aurignak aldiak (Lehen-goak baino zaharragoak) Gizaki baten bi besahezur eta giltzezur bat zeuden; gizonezko batenak omen dirudite eta indartsua bera. Masail-hezur zati bi, eta bost kaskezur zati, azken hauek batenak baino gehiagorenak ustez.

Erdi-Aurignak aldiak, Neanderthal giza-hezurak: Hatzaki edo falange bat eta masail-hezur zati bat. Neanderthal giza-hezurak Lezetxikin (Arrasate) eta hemen bakarrik aurkitu dira Euskalerrri guzian.

Giza-hezur guti aurkitzen da har-zuloetan, zergatik ote? Beste nurbaiten ehorzten zituztelako? Erre egiten zituztelako?

EHIZA UDAN ALA NEGUAN?

Elur-oreinak, beste ugaztun guzietan bezala, umeak eginaz ugaltzen dira. Umea garai batetan egiten dute beti, maiatza eta ekaina tartean, nunnahi direla.

Bi hortzaldi izaten dituzte, bata berehala galtzen dutena eta iraunkorra bestea. Hortz aldatze garaia ere beti berdin dute.


Gaxte diren artean, bi urtez behetik hortzetan igerrri daiteke zenbat hilabete duen. Beraz, guk elur-orein baten hortzak aztertuz sei hilabete dituela badakigu, abendu aldera hil zela esan genezake.

Azterketa egin ondoren denak neguan izan direla hilak ikusiko bagandu hipotesis asko genituzke aurrean: Alako ihiziek neguan bakarrik izaten ziren hemen, edo, gizona udan ez zen hemen bizitzen, edo, gizona eta ihiziak urte guzian han biziagatik neguan bakarrik ehizatzen zituen. Azkeneko hau farregarri dirudi, noski.

Gure artean honelako azterketak egin ondoren iritzi honetara heldu da Jesus Altuna: Hemen elur-oreinak urte guzian izaten zirela eta baita gizonak harrapatu ere.

Ogeita bost elur-orein masail-hezurretatik bost bakarrik ziren bi urtez behekoak. Bost hoietatik bi neguan hilak ziren eta 3 udan. Oreinetan egiten hasiak dira horrelako azterketak. Hauek ugariago izanik ondoren ziurragoak emanen dituztela uste dugu.


Marzelino Aizpurua
Aranzadi Taldean



Isturitzen hain ugari diren zaldi - buruetako bat, hezur-rean egin.



Hezur batetan egindako gizon eta emakumeren irudiak Biek koizare bana dutela eta eraztunak batek txokofilean eta gizonak esku-muturrean.




Isturitzko harzuloaren orris edo planoa

HIZTEGIA


- Soinbera: molusco
- Lepautzai: omoplato
- Kaskezur: cráneo
- Ukal-hezur: cúbito
- Giltzezur: clavícula
- Hatzaki: falange

ISTURITZ



- 1.-Ondo bikoitza duen azagaia.
- 2.-Zulakaitza (buril)
- 3.-Mudur bat, hosto eran landua.
- 4.-Gravette mudur bi.
- 5.-Eguzti hezur zulatua, txilibitu(?)

Isturitzko lur-mailen ageai bat. Ezker aldean ikus egurastiaren gora-beherak, ihizien agerpenetik lor genezakena



LIBURUAK

EUSKERA-ERDERAZKO
ANATOMIA-IZTEGIA

GIZA BIZIA (Vida del Hombre) izenburuarekin, 239 orrialdetako euskera-erdera. Iztegi eder bat du Gipuzkoako *Aldara-diru-etxeak* (bestela deitua, *Aurrezki kutxa*) argitaratu. Sendakin donostiarra dugun Carlos GOENA pralle-jesuitak, neke eta lan aundiko *Atlas anatómico bilingüe* delako bat osatu du, Oregi eta Zatarain jaunen laguntzarekin.

VALVERDE Moldiztegiak zinez handizki du satinpaper distirantean imprimatu. Bigarren zatian (*Anatomia-irudiak*) kolorezko apaingarri asko dakartzu, Garrido artistaren eskukoak. Artzokodun ere gelditzen da *Aldara-diru-etxe* aipatua, hain eskuzabalik ixuri duen laguntzaren-gatik. Tamala zinez, sos horiek ikasletoetan beharrezko diren beste liburuxka bat edo bi osatzeko ez baliatu zitea.

Aurrera jarraitu gabe esan dezagun mediku-espezialista bati zoakon amets-iztegia dela hau, eta ez egungo Eskolategietako Iztegi arronta bat. Hala ere, jeneriko-itx asko ongi moldatuak daudela iduri zaigu, bai eta anatomiko itz parrasta bat, zuzen emanak: hala nola —*esófago*— (estegorri) —*anticonceptivo*— (ermal-eragozle) —*Bakteria*— *Vasos sanguíneos*— (Odol-odiak) —*Comisura labial*— (ez-pain-xoko) —*Arteria*— (zaingorri) —*Parótida*— (Parotis) eta beste halako.

Baina izen asko, behar batere gabe euskeratu dituztela gaude, kultur-izkuntzek egiten ez duten bezala. Altabada, azken aldeko eras-kinean GOENAK berak dio: *...Euskera, beste izkuntza landuen antzera jokatu bearra da...; Hau da, erroa greko-latinetik artuz eta sufijoak euskeratuz. Gero autoreak jarraitzen du: ...Sendagile-izkuntzan erabiltzen diren ainbat itz falta dira...; baina guk uste sendakin arrontek (ez espezialistek) erabiltzen ez dituztela, ez jakin ere, Iztegian sartu diran hainbeste itz. Beraz, autoreak predikatzen duen tankera, ezto segitzen.*

Arriola gure lagun Atxeterrak Itzaurrean, honela dio: *...Liburu hau ezta beinere erreza-aldizka, zail gertatu da—. Gure ikas eta Irakas-mailak, beraz, oraino apalago daudela aitortzeko, ezginuke eraberik izan behar. Oroit gaitzen GALES-en, esperientzia luze baten ondotik, bi-eletako Eskoletan eta Lizeotan, gai batzu (Matematika, Fisika, Biologia, etc.) ez dituztela gales-izkuntzaren, Z. Argia-ko idazle batek ere zion bezala, *inglesez* baizik; gales-izkuntzarendako utziz *Geografía, Historia, Literatura* eta *Erlisioa* gaiak txoilik.*

Bestela, Iztegiak zuzen osatzeko, ekipoen egite behar dira, irakurle

franko duten idazle geienek usatzeko gisan taxutuak. Ez dezagun orain, Larramendi famatuaren Iztegi hura bezalako bat osatu, apropos erdaldunen aurpegira botatzeko egina: euskaldunen eta idazlearen usariorako baizik. Oraikotz, zientziako itz arronteenak txoilik sartu beharko dira euskal Iztegiak; zozkeria litzake, mintzazaleek nekez artuko dituzten itzak asmatzen aritzea.

Liburuaren lehen zatian, grekotik artutako sufijo batzu azaltzen ditu autoreak; hala nola —*algia-cardiatis-lisis-osis*—, baina euskeratzean azken -a kenduz, izenak farregarri uzten ditu (—*neuralgi-takikardi-hepatitis*—, etc.): beste izkuntzetan (Frantsesak ere orain) —*neuralgi-takikardi-hepatitis*—, etc. esaten dituztelarik.

Baina ez bakarrik hori; euskaldun idazle geienek (joan den mendeko gipuzteak ere barne), kasu batzuetan, -a organikoak baztertu gabe idazten dute; *...nescacha bat* (ez nescach bat) —*egua ciertoa da*— (ez egi ziertoa) —*Espainia-co* (ez *Espaini-co*)... hala Gregorio ARRUE-k. Hemen denok dakigu, —*Errenderia-Donostia*— esan eta idatzi dela orainsu arte, kantak dion bezala:

Iru damatxo Donostia-ko | Errenderian dendarri | (ez Errenderin). Orain bertan Barandiaran-ek bere lpuinetan dio: ...anaie zaarrenari (ez anai...) geo anaie gazteena... makilla oi geatu... (ez makil oi...) ...ikus eban neskatilla bat-pentsatu eban neskatilla arekin... (ez neskatil arekin...) ...burdiña au lagun dabela... (burdin au... ordez).

Berdin J. Batista Agirre gipuzkoarrak... *Paradisuan arbola bat... (ez arbol bat)... bizitza bat... Au da egua bat zure siniste edo fedac... Iru gauza bear ciran... (ez Iru gauz...) ...eta hala hala beste idazle on guztiek.*

Intestino ciego —este makur— esaten dute, baina ez —este itu—. *Esclerótica* ezta —begi zuringoa— *begiko zuria* baino (zuringoa —clara de huevo da). *Conducto de Falopio* —de Silvio— *Trompa de Eustaquio* —itzultzeko, ezta -ren sufijo sartzu beharrik— *Falopi-ren, Silviren* —ubide— *Falopio ubidea* —baizik.

Izen bitxi asko asmatu ditu egileak —*Ventriculo*— (sabeltto), —*auricula*— (sapailua) —izkuntza landuek egiten ez duten gisan.

Bigarren partean, anatomiko sailleen iduri eta apaingarri ederrak dakartzu. Oro har, liburu ederra atera dute, txukunki moldatua eta apaindua, eta horrexengatik goresmen bizienak dituzte eragileek mezezi.

A. IRIGARAY

ARTE
GALERIETAN BARN

● JUAN SALSAMENDI ETA BERE PIROGRABADOK. Orain dela guti, donostiar artista honek ageriturik du-28 pirograbado, Información y Turismoko aretoan, ikusle asko eta kritika ederrak bilduz. Zurean erretako dibujoak ditu bere obrak, ikusten ohiturik gauden erakusketetan nabarmenduz. Hiru urtetan egin etengabeko lan eta sortze-entsaioen, era guzietariko komposizio, paisaje edo erretrato lanaren fruitu izan da erakusketa hau. Arkatza ordez pirographoa eta oihala ordez zura hartu duen dibujante on bat da artista. Fruitua: indarrez eta gusto onez egindako obra apaingarri eder bat. Zeren eta, Salsamendiren obrak pinturaren eta eskulturaren lana sintesi estilizatu batean bildu edo egiten baitu. Baliteke, agian, artista honentzat oihala bigunegi gertatzea eta haren nortasun indartsuari eskultura hobekiago egokitzea. Ikusgarri da, izan ere, pinturaren alorretik egin duen evoluzioa eta erakutsi duen obrak duen eskultore edo tallista lana (hala nola euskaldun haizkolariarena). Pentsa, bestela, zura lantzeko joera honek muletako arte herrikoian duen tradizioa.

Egia esan, ardietsi duena oso egoki eta osatua dela, behatze hutsaz ikusten da. Horra, adibidez, «Interior», «Banco»-nahiz «Manada» komposizio xarmantak edota haur nahiz larrien erretratoak edo Urbasako pagoak. Hala ere, gure iduriz, ñabardura ugarien kalitatearekin batera eta ia obra orotan nabari zaien dibujo indartsuarekin batera, sortze-senari libreki ibiltzen utzi behar lioke, «Izaba Modesta» eta «Cabeza» obretan egin duen bezala. Bestela, pintur-literatura edota, Sert-en bezala, decorativismoa egiteko arriskua dago. Eta Salsamendi atera daiteke zirkulo horretatik, baldin berak nahi badu eta abstraktoari nahiz modernoari buruz dituen idea eztabaidagarri eta motzak uzten baditu. Errealismo eta sozial errealismoaz hainbeste mintzatu ohi den garai honetan, Salsamendik asko eman ditzake, horretara jartzen bada. Nik hala espero dut. Atseginez ikusiko ditugu haren hurrengo urratsak.

● Bada denbora EDUARDO TXILLIDA eta Madrilgo Udalaren artean istiluak direna dakigula, zubi baten azpian esegirik eskultura bat ipintzeko kontuaz. Azken honetan, batzorde batek esana du, ez duela zubiak behean jotzeko arrisurik eskulturaren 10 toneladak direla eta; baina Udalak, setatsu, «Txillidari ez» esanaz jarraitzen du. Eduardok berak deklarazio batzuetan honela esana du: «Ezezkoren arrazoiak ez dira teknikoa, politikoak baizik». Betikoa. Politika iparrean bakarrik egiten dela esanen dute gero.

● Erreterian bizi den MARTA GARDENAS donostiar pintorak, bere krisiaren ondoren, agertuak ditu Donostian egun oroko errealismoaren hildoen diren pintura eta marrazkiak, grisetan bilduak. Martak, bere mintzaerari zintzo zaiolarik, ondo osaturiko obrak, sakanak eta poesiaz beteak erdiesten ditu. Beti «zailagoaren» bila. Bera Bidasoan, Pio Barojari egin zitzaion omenaldian honela esan zidan: «Ene pintur-mintzairaren evoluzio eta aldaketaren une larrian eta kinkan nago».

Berritu ala hil. Hauze da kontua eta kreaio alorrean gurtzibidea. Eta galdak bizaitote bestela Alejandro Tapia aginagarrari, egun abstrakzioaren bideetatik baitabila.


● JORGE OTEITZA, egungo eta edonozko euskal eskultorerik handietarikoak, Alicanten ari da lanean bere «Homenaje al Fuego» egiten eta Catalunyan «Homenaje a Navarra» egiten. Hagitz poztutzen gaitu herrek, baina poz handiagoo hartuko genduke baldin eta gure erakundeetarik batek dei balezaito gure etxen zerbaite egin lezan. Ez ahal zaizue iduritzen? Oteitza batek fortuna bat balio du. Bihar... burura ezinezkoa. Oraindik ez dugu jakin, horixe da tamalgaria.

● Gipuzkoako BOLIBARREN arkeologiko idoropen miresgarri bat izana da: urrezko ontziska bi, hallstastiko garaikoak, VII mendea K.a. Lur jauzi bat zela eta lurra kentzen hastean idoro zituzten hango baserri batzuek ontziska bi horiek, bata bestearen barnean. Frantzisko Akizu deritzu idoro zituenari.

Urrezko ontziska biak borobilak dira, 20 zentimetro-tako diametroa dute, mailuz landuaz apaindurikoak. Iberika Peninsulako urregintzan bakarrik dira pieza hauek, ez da horrelakorik ezagutzen Portugalen, ez Espainian ez Frantziara.

Nik ez dut ikusterik ukan, Madrilen baitituzte neurten eta baloratzen. Beldur naiz han geratuko ote diran. Ikusi dituztenak diotenez, bi bitxi dira, estetikaz ere.

● PALACIO PROVINCIAL izenburuaz, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak, bere argitaldiaren bidez, photographik reproduzio ederrez eta hauei dagozkien



«Nafarroaren omenaldia»: Jorge Oteitza, 1973.

textuz argitara eman nahi izan ditu Gipuzkoako Al-dundegian —Diputazioan— gorderik dauden obrak.

Hona biltzen duena: Aldundegiaren kondaira, hango obrak, beirakiak —vidrierak—, zenbait gela eta areto grafika, D. Julio Urkijoren biblioteka, eta honoko artista hauen obraren reproduzioak: Enrike Albizu, Aurelio Arteta, Berrueta, Bienabe Artia, Jose Etxenagusia, Flores Kaperotxipi, Manuel Losada, Ascencio Martiarena, Francisco Mancheta, Jose M.ª Romero, Elias Salaberria, Julian de Tellaetxe, Ignacio Ugarte, Pablo Uranga, Vazquez Diaz, Ignacio Zuloaga, eta Jose Villegas, eta azkenik, liburuaren amaieran, zenbait eskultura, ordulari eta zenbait garaitako jarrorien reproduzioak dakartza.

● Abenduaren 7tik 17ra UROLA IBARREKO BILTZARRAK izanak dira. Biltzar hauetan egungo euskal artearen erakusketa interesgarri bat egina da, eskultorez eta pintorez osaturik. Antxietaren etxea, hiri barnean geratu den jauregi zaharra izan da Biltzar-etxea. Aukera oso egokia izan delakoan gaude eta azpeitiarrei eskaini zaiena oso interesgarri izan da. Santiago Amon, Madrilgo kritikoa onaren hitzaldia ere izan dute gainera. «¿Qué es lo moderno?». Eta horiek batera jaialdi eta kultur ekintza asko; nabari denez, hori da gure kultur egoerari erantzuteko bidea. «Gaur eta hemen» halako Biltzarrek oso osasungarriak zaizkio gure herriari. Ea jarraitzen zaion ikasbide horri.


● ALZO-AZPIKO PARROKIA BERRITUA. Oria ibarreko herrixka polit horretako bizilagunek hauzo-lanean gogor ekin diote bere eliza berritzeari; horretarako Migel Angel Olano Filipinasetako gotzain eta herriko semeak diru mordoak utzi zuen. Lanak bere bideari jarraitu dio, baina dirua ahitu egin da. Nork emanen ote du obrak aurrera egin dezan eta lana osa dadin? Ene iritziz, bada gure Herrian dirua duen eta gainezka duen jendea, eta halako obra batetarako eman dezakeena. Alzo-Azpiko eliza 1.025ean jasoa da Euskal Herriko zaharrena. Hormak eta arkuak garbitu dira, bai eta leiho romanikoak ere, baina presbiterioa falta da eta lehen zuen bataio-pontea ipintzea; orobat, 1588an Pedro de Goikoetxeak egin eta Joannes de Antxieta handiak 437 dukatetan tasatu zuen erretablea errenazentista ederra. Esan dudanez, dirua falta da; ez, ordea, gustoa eta ahalegina; horretan bakarria baita D. Juan Martin Zuríarrain Ale-giko erretorea. Haren eta neure izenean, eskua luzatzen ausartuko nintzake, Gipuzkoako eta Euskal Herriko patrimonioa aberas daitezten.

EDORTA KORTADI

Donosti'ko
Erri-Etxe'ko Aurrezki KutxaEUSKAL IRRATI
SAIOAK

Banen baneko azikai
Ongarri ta abonoak
Belar Zuloak
Erosi edo berritzeko diru
aurreratzea
Baserrri, lur-tresnak ta abar
Torelavaga'ko Perira joan
etorriak

Baserrriaren alde

YOGUR
GURELESA
GOGOZKOENA

arranzazu aldean

Euskalerrriak badu, bai, leku po-
llit eta bazter ederrik ugari, eta
eder oien artean lekuri paketsue-
netako bat eta osasungarrieta-
koa, ARANTZAZU degu.

Aste Santuko oporraldiak dirala
eta Arantzazu aldean izan danak
ondotxo daki ango berri. Egunik
ederrenak, pozkarrienak, Arantzazu
aldean igaroak ditugu. Ango uda-
berriko iintz eta lore usai ederra!
Ango pakea... euskal giro gozo...
adiskidetasun eta batez ere Jauna-
ren maitasunean indartzeko senda-
gairik onena, bertan arkitu oi degu!

ARANTZAZU! Euskaldun askoren
amets-leku. Urre izpitan bildurik,
eguzkiarekin eten gabe ametsetan
ari dan zerutar lekuri alaiena.

Goiz egun urratuaren lambropean
aingertuoen jolastoki dirudi; ar-
kaitz artean biguniki jostatzen dan
atseden tokirik ederrena.

Zelan agertu nere itz motelaz
bere edertasuna? Nere iritziz, izan
diteken pake-leku, kabi-kutxarrik go-
xoena. Ain zoragarria da!...

Erdiz-erdi, Aizkorri ber-bera baino
kementsuago eta lerdnago ezkil
torre luzea, arantza irudiz diralaik
dareizela, guzien gaitetik bere bu-
rua jasoaz. Aurrez-aurre, arkaitzez
inguraturiko Arantzazuko Amaren
jauregi berdingabea. Eguzkiaren gal-
dak dizdiratzen du guzia. Alde gu-
zietatik, baso, mendi, zaitz, belar-
di eta soroz estalirik. Ikuspegi ede-
rrak ditu Arantzazuk.

Bertan biltzen dira bidez-bide joan
oi diran erromes fededunak, denak
otoizlari, kantuen artean kantatzen,
maitasun artean maitasunez erre-
zaten, bizitzako utsegiteak arindu
eta oben nekea betetzen. Baina...
Zuk zer dezu Arantzazu? Urrutieta-
ko gizonik ospetsuenak, Margolari
bikainenak, irudi-gillerik onenak,
eliz-gizonik aundienak, gazteria zin-
tzoenak, mendigoizale purrukatue-
nak, guziak, atseden toki ontara jo-
tzen dute pake, zorion eta argi-
tasun billa.

Agur dagoite guziek Euskalerrriko
lekuri ederrenari.

Arantz artean agertutako
zeruetako izarra,
biotz barrenen sortu dizkigu
maitasunaren su-garra.
Zu zera gure zaindari eta
egizko Ama bakarra,
Zugan daukagu itxaropena
badegu Zure bearra,
gorde gaitzatu orain ta beti
Birjiñ Arantzazutarra.

Gora dezagun Arantzazuko
gure Amatxo maitia,
andre guztitik aukeratua
grazi guziaz betia.
Itzul itzatzu gugana Ama
Zure begi bitartia,
Euskalerrriak Zugan jarria
dauka gaur uste guztia,
erbeste ontan gure zaindari
Amatxo, izan zaitia.

ANDONEGI

ataun

«ILE APAINKETA» TOKIA

Duela zenbait hilabete, San Gre-
gorio hauzoan, gizonetako le-
apainketa lekua (bat bakarra ze-
goen) itxi egin zen; emakumeei
zegokiena itxi zela, berriz, bada
anitz urte.

Apirilaren 26an, ordea, ile-apain-
keta toki berri bat iriki da: berau
emakumeentzako, eta baita gizonet-
koentzako ere (zergatik ez, gaine-
ra?) egokitua. Mari Eujeni Agirre
neskatxak iriki du. Neskatala hau,
jakin dugunez, lehendik ere aritua
da lan hortan. Baditu bi diploma
ere.

Bestalde, San Gregorioko Olalde
etxadiko bajerá batean aurki gene-
zake aipaturiko leku hori. Eta den-
dena, egungo erara ezarri du: hots,
«moda» errespetatuaz.

Orai, gauza bat bakarrik falta da,
eta hori herriko emakumeen bai-
tan dago batipat: zuek emakumeok,
bertaratzean alegia. Zeren eta me-
rezi duela uste bait dugu. Bai ala-
jaina!

«IZAR» HAUR TALDEA

Sortu berria dugu Ataunon San
Gregorion, «Izar» deritzaien haur
talde bat. Hogeita hamarren bat

dira orotara; eta oraikoz, antzerki-
gintzan dihardute batipat. Abesti,
flauta, eta abarrez ere arduratzen
dira.

Jakin dugunez, euskal abesti zen-
batez, flauta saio batzuz eta eus-
kal antzerki batez osaturiko jaial-
ditxo bat prestatzeko eginahaletan
ari dira. Iritxiko ote dira heuren
helburu hori betetzera?

Emanen dizugu bere berri zeha-
rtagorik beste batetan, irakurle.

Trikuarrieta

getxo

Martxoaren 17 tik 25 era, I Ume
Pintura Erakusketa eta Bertoko
Margolariena arrakasta haundi ba-
tez ospatu ziran Arriluzeko arran-
tzaleen etxean.

Bi erakusketa honeek Itxas-Ga-
neko Kultur Taldeak eraturik izan
ziran Getxoko Udala, Bizkaiko Au-
rrezki Kutxa, ikastetxe, ikastola eta
denda batzuen laguntzaz. Antolai-
tzailerek esaten euskuez, beraiak
zabalduak liburuxkan, umeen era-
kusketarako karkuluak gaintuak
izan ziran, hainbeste erakusle azal-
duko zalakoan ez bait egozan. U-
meen honetara 600ek jo eben eta
bestera 16k. Halako gauzak egi-
teko oso ondo dagoen erakustoki-
tik 4000 ikusle pasa ziran. Azken
egunean ume erakusketaren aipa-
menak egin ziran, sariak zabaldu
eta Itxas-Ganeko dantzariak dantza-
saio bat eskaini eben Arriluzeko
leku ederrean.

—oOo—

Maiatzaren 7tik 13era Itxas-Ga-
neko Kultur Taldeak antolatutako
II Euskal Kultur Astea ospatuko da.
Lehenengo orain dala bi urte ospa-
tu zira.

Oraingo hau hiru hitzaldi eta
kanta-saio batez osatua da. Hona
hemen diranak:

7an Jon Larramendi, Debako Es-
kolakoa euskal arteari buruz mint-
zatu du.

9an Abel Muniategi, bertsolaria,
gaurko literaturaz (ahozkoa eta ida-
tzia).

11an Andoni Cayero, Deustuko
Unibertsitateko irakaslea, gure eko-
nomiaren egoeraz. Hiru hitzaldi hon-
eek MM. Trinitarias-en ikastetxe-
ko aretoan, Algortan eta arratsal-
deko 8etan ospatuko dira.

13an Algortako Gran Cinema-n
«Ohiartzunak», «Oskarbi», Joseba
Zarraga, Gorka Knör eta Lupe-k
kantaldi bat emongo dabe. Kantal-
di hau igandeko goizean ospatuko
da baina ondino ez dakigu zer
ordutan.

—oOo—

Martxoaren 31n Itxas-Ganeko
etxean eta klub honen lagunentzat
Aurtiz idazleak oso hitzaldi ederra
emon eban Euskal Herriko ekono-
miaren egoeraz. Hizlariaren azalpe-
naren ondoren elkar hizketa on bat
sortu zan gauza batzuk argitzeko.

JUANJO

berango

OMENALDI BAT

Martxoaren 3an Ikastolako gu-
rasoak Iñaki, Juan Manuel eta
onen emaztearen omenez afari bat
eskeiñi eben.

Iñaki, Agate-abealdearen zuden-
dari trebe eta sutsua izan zalako.
Juan Manuel eurakaz joan zan
txistularia.

Eta Juan Manuelen emaztearen
alde, zergaitik? Ona emen guraso
baten erantzuna.

Gure Juan Manuel emengo eus-
kal dantzarien «GURE-TXOKO»ko
txistularia da.

Orrezaz ganera gure erriko txis-
tulari arduraduna da. Ori olan
izan eta Bilbon bizi arren gure
errian sarritan ikusten dogu.

Gizonaren ondoren geinietan
emakumezko bat dago. Batzutan
ama, bestetan emaztea, emazte-
gaia... dana dala. Eta emakume
orren jarrera gizonarena espada,
gizon orrek bere eginbearra txarto
beteko dau.

Beste aldetik emakumearen ja-
rrera bere, gizonarena bada, or-
duan bai gizon orrek erretzasunez
eta bai alaitasunez osatuko dau.

Sarritan, gizona bakarrik ikusten
dogu eta ostein dagoan emaku-
mearen garrantzia aaztutzen dogu.

Orra or Juan Manuelen emaz-
tearen alde Ikastolako gurasoen
omenaldi apal au.

Bat batean eta emendik onen
antzeko emakume guztiei nire es-
kerrona bialtzen deuset.

EUSKERA ETA ERRIKO
ABADEAK

Zeruko Argiaren 524 zenbakian
auxe irakurri neban: ...«Neure la-
gun batek esan daustan lez, gero
ta ugariago doaz Euskalerrria zear
ikastolak. Ederto dago ori. Ortze
dago gure euskeraren etorkizuna.
Aurrera, beti aurrera. Guraso guz-
tietei auxe esan gura nauzkie: bial-
du ikastolara zuen seme alabak
eta etxean beti euskeraz itz egin».

Au, mixiolari irukoiztar batek
idatzi eban.

Onen antzeko abade euskerazale
asko dagozala ondo dakit. Beste
batzuk, osteraz...

Ikastola eta euskerari buruz gu-
re abadeen jokoa?

Euren buruei erantzun zintzo bat
emon baiño leenago azterketa sa-
kona egin daiela.

D. LORENZO SALABARRIA,
DURANGORA

Entzun dogun legez gure D. Lo-
renzo oraintsu arte Erandio-beko
San Agustin Elizako erretorea,
Durangora joango jaku. Urribarriko
Andra Mari Elizan erretore barria
izango da.

Gure D. Lorenzo diñogu. Izan be-
ermuatar abade au Erandiora joan
baino leenago ta ogei urtez gure
erriko erretore izan jaku.

Orrezaz, eta berangotarrentzat
aita on baten antzekoa izan zan
ezkero guk abade zintzo au geure-

-geurea eta aitzu-eziña dogu.

Diñoen legez Urribarriko eliza
Bizkaiko garrantzitsuenetariko bat
da. Ori olan izanez bere bizkarra-
ren ganean lan gogorra jausiko
jakola sumatzen dot. Alan da guz-
tiz be beste abadeen eta durango-
tarren laguntza enkitetan elburu
ederrak lortuko dituala ziur nago.

Abade on, zabal eta sutsu au
ezagutu dogunontzat onen urrun-
tasuna mingarria da baiña Duran-
gon bearrezkoa bada... auxe baka-
rrik esango dot:

Zorionak durangotarrei!

MUNARRIKOLANDA

bergara

ILLETA

Joan dan igandean goizeko ama-
ketan San Pedro eliza nagusian La-
rrea eta Lekuonata Jose Mariren il-
elizkizunak ospatu ziran. «EL DIA-
RIO VASCO»ko erri ontako berri
emallea. Bere emazte, seme-alaba,
ama arrea eta aaide guziet gure
samin agurra.

KANTALDIAK

Egun berean eta eliza ontan,
Frantziako Comme Bourg «Les pe-
tits chanteurs de la federation in-
ternationale»koek abestu zuten; ja-
kiñekoa dan bezela denak ume zi-
ran eta ume izanik aingeruek be-
zala abestu bear. Jendea pozik
atera zan.

Baita, illaren 17 an eta toki be-
rean arratsaldeko 8 etan, Gipuz-
koko kamarako orkesta eta Maitea
abes taldeak saio eder entzungarri
bat agertu ziguten Suizako on Luca

Pfaff ardurapean. Jendea erruz.
Guk ez genduan uste ainbeste jen-
de batukoanik.

Zorionak denoi, Hernandez Uso-
biaga Maria Teresa Maitea abest-
aldearen artezkariari eta esker be-
reziarik Gipuzkoako Aurrezki Ku-
txari.

KONPONKETAK

Eguraldi onaren babesean ikus-
ten degu gure erregebide negarga-
rriak asi dirala tajutu edo itxura-
tzen; baiña, zenbat denboratarako?
Guk, urte batzuek bizkar gaitien
daramatzigunok, ezagutu genituen
leengo errepideko konponketak.

Egiaren alde esan bear det, le-
enago, auen iraupena luzeagoa za-
la ba aldi artan ez zan gaur beste
berebil.

Ume umetatik ezagutu genituen.
Diputazioko tresna eta trimankulu
aiek. Aurrean, lurriñezko zunbil (ci-
lindro), onen urrango gu, alan dei-
tzen genion, burdiñeria eta azke-
nez oni erantsita alako gurdi aun-
di bat, au zan tresna aien langi-
lleen logela.

Oroipen auek etorri zaizkigu gaur-
ko konponketak ikusirik. Esan lei-
teke gaurko igikunea (movimiento)
ikusirik orrela bear litzatekeela,
egonari ortan gaurko konponketak
barregura edo negargura ematen
due; leengo zaarren gaitetik
arria, galipot juxtu juxtukoa eta or
konpon Maria Anton txakurrak buz-
tana beria jon, baiñan egiaren alde
esan bear degu konponketa auek
bere alde ona badutela, bere ben-
tajak agian ikusiko ditugula; ba
egun bat elduko da aldapa guziak
lautuaz, orduan ez degu izango ez
Deskarga eta ez Elgeta. Leenago
ez goratzea...? Adarrak ezaidak jo!
Autopistak zertarako?

MENDIKOI

Zure salmentak ugaldut ditezke



Salerosketarako
diru laguntza

Zure salmentak era askotara ugaldut ditzakezu.
Zure denda aundituaz eta eraberrituz; bertako
salgaiak aukeran eta gaurkoak ipiñiaz; denda be-
rriak zabalduaz; garaiari guraioari begiratuaz; bear-
den neurrian berrituz... Ots, zure denda gogozkoa
eta atsegina izan dedin bearrezkoa duzun guztia
eskuratuaz.

Zure denda osatzea, indartzea, aunditzea, dela eta...
kezkatu bazuaz, zator guregana, bear duzun argi-
tasunik eta laguntzarik jasoko duzu.

SALEROSKETARAKO DIRU LAGUNTZA onura-
kor eta komenigarri izango zaizu, benetan. Zure
kezkatu uzatzeko asmatu dugun zerbitu bait da.

CAJA DE AHORROS PROVINCIAL
DE GUIPUZCOA



FARMACIA

lezo

DROGAK

Ez pentsa, ez, urrutiko herri baitan besterik zabaltzen ez enik. Gure herrietan ere aski baino, gehiago zabaldurik dago, baita Lezon bertan ere: telebista. Egia dela ikusteko atera zaitzete kalera asteazkenen batean (gehienetan izaten bait da futbol-partida) eta zakurririk ere ez duzu ikusiko; aski da telebistan futbol-partida edo antzekorik izatea herriko kaleak zeharo hustutzeko. Konturatuko zera ongi toreatu ez ezik nahi bezala erabiltzen gaituztela.

Fubola, bakarrik ere, askoren droga bilakatu da. Igandetan goizetik fubola ikusten dute, arratsaldean Atotxara, ilunabarrean telebistako partida; asteloheneretan igandeko partidak komentatzen dira nun-nahi; asteartean asteazkeneko partidaren pronostikoak; asteazkenetan, telebistako partida; ostegunetan bezperakoaren goraberak aipatu; ostiralean kintielak bete, eta larunbatetan igandeko partidaren iritziak eman. Horra programa ongi bete!

Hok bizi alkoholismoa eranstean bazaito, txorabiraka ibiltzeko zikulu-saltsa ederra egiten da.

KALEAK

Aspaldi xamar hasi ziren ur-erakartzeko lanak eta lan hauek direla-ta ongi jorratu dituzte kaleak; Aste Santuan gurutze bidea egiteko aproposak dirudite eta seguraski horregatik utziko zituzten dauden itxuran, Zubitxo batez ere.

Faborez, ardura izan behar zenukean jauna, buka itzazne zuten lanak lehenbat lehen, bestela ez gaituzte taxistek etxeratu nahiko, ez eta lagunak ere behin kotxetan, asko inozatzen bait dira; gainera, Beheko Elizako ezteietara datozenak, gauzak konpontzen ez badira behintzat, eskalaproiak eta abarkak jantzi beharko dituzte. Ia Herriko Etxean ipintzeko diren erlojuarekin lanak azkarrago egiten lituzun. Hala biz eta eskerririk asko.

ERROMESAK

Lezorako bideak oso gaizki daudela jakin dute nunbait Gurutze Santuaren debotek eta ugari etorzen da orain, sakrifizio gehiago egiteagatik edo. Badakit berri-emaile honekin haserre daudela, baina zer egingo diogu ba!

BEHEKO ELIZA

Teilatua berritzen ari zaizkigu jo-ta-ke, eta ez noski erromesek utzitako diruz, gutxi ezik inor ere etortzen ez delako (Aurrekoa adarra jotzeagatik zen).

GEZUR GEHIAGO

—Kontseju-pean esne ona jarriko omen dute salgai, Herri-Etxeko sekretari-ordetza edo delakoa umore txarrekoa dagoenean, bederen.

—Herri Etxeko Apainketa-Batzordeak keza asko presentatu omen du Aintamentuaren plenera.

—Santakruz-Txiki eta Bazko festak direla ta, Aintamentuak, idatzlehiaketa bat antolatu nahi omen du; lehenengo saria 100.000,—pta. aurten ere superabit izan ez dezan.

—Azkeneko plenoan, Estalayok deus esan ez badu ere, ambulanzia bat kontratatzea erabaki omen zuten gure ordezkariak.

—Maiatzean lore-hila dela-ta, hertzainek multen ordez krabelin gorriak emango omen dituzte eta amableagoak izango omen dira. Ia egia den.

—Udaletxearen eskaerei esker, CTNE-k telefono kabina jarriko duela entzun dut, eta gainera pezatarik bota gabe funtzionatzen duena, debalde alegia.

—Laster "Nigt-Club", "Boite", "Discoteque" edo delako hoietako bat ireki behar dela entzun dut, edo ireki nahi dutela bederen. Kontuz ibiltzen ahal gera! Dena-dela, ez nintzake asko harrituko.

—"Harri-Haundi" baserriko zelaietan "Gran Tirada Provincial

al Plato" delako antolatu dute. Ihiztariek (? bukatu bezain pronto puskatutako platera guztiak banan bana jasoko omen dituzte.

SISTIAGANEKO PELLOK

eibar

EUSKAL MEZA

Pazko Igandean, eguerdiko 12etan Euskal Meza izan zan karmeldarren elizan.

Meza emalea, neska dantzari talde baten erdian sartu zan, txistulariak birbilketa alai bat jotzen zuten bitartean.

Asieran, neska talde onek, gorulari jantzita, Minuetoa dantzatu zuan eta Sagara ondoan mutilak izan ziran dantzariak.

Aita Karmelo eta Rufinok, Pacem in Terris enziklikatik zati labur bat irakurri eta gai berbera artuaz, bertsoan abestu zuten Erri Otoitza, benetan zoragarria.

Eskerrak karmeldarri egiten zuten lanagatik, jai audietan beintzat euskal giroa ipintzen eta danok batzen.

EUSKAL POESIAREN IRAKURRALDIA

Asteartean, S.C.R. Arratean, arratsaldeko 8etan, Xabier Lete ta J.M. Arze, abeslari eta txalapartari trebeak bezela oso ezagunak, Euskal Poesiaren irakurraldi bat eman zuten.

Luis Alberto Aranberrik (Amatño) itz batzuk esan zituan irakurraldiaren gainean asiera bezela eta S.C.R. Arrateko batzar zuzendari berriak dituan leengo asmoak azaldu zituan. Itzaldi asko izendatu zituan asmo auetan eta dei bat egin zion Eibarko erriari aal duan guztietara joateko.

Irakurraldia zati bitan izan zan. Leengoan, XIXgarren gizaldiko azkenetik gaur egunerainoko Euskal Poesiaren Kondaira motz bat agertu zuan Letek. Bere itzaldian, poetarik ospetsuenak aipatu zituan, zerbaite esanaz bakoitzagatik. Poesiaren bide berriak, kondairak eta beste errialde batzuetako poesiak euskaldunari eman dizkioten influentziak ere ikutu zituan. Arzek, bere aldetik, diapositiba, diska eta itzez, poesiaren azalpen plastikoa agertu zuan.

Amar minutu inguruko aldarte edo deskantsu baten ondoren, bigarren zatia asi zan. Benetako Euskal Poesiaren irakurraldia. Arze-Lete, Arze-Lete. Batean batak, beste besteak, bakoitzak bere poesiak irakurri zituan. Orduak eta orduak egon zitezkean biak irakurten entzutearren bakarrik.

Letek esan zuenez, poesia irakurraldiak, Ingalaterran garrantzi handia dute gazterien batzarretan naiz eragozpen bi izan: ezin dirala poesiak bigarrenez irakurri eta ezin diralako gogortu edo mediatu.

Jendeak oso erantzun ona eman zion. Igandeko izparringian agertu zanez bakarrik, ez zan itxoi ten be aldeko zatia esate batean beteta aurkitzea.

Gauko amar ta laurdenetan, irakurraldia bukatzean, asieran Aranberrik egin zuan bezela, Letek ere dei bat egin zion Eibarko erriari itzaldi guztietara joan dedila eskatuaz ta eskerrak eman zien entzule guztiei.

Sarrera duan izan zan. Gure erriko dendetan zeuden iragarki edo anunzioetan poesi zati au agertu zan: «Hotzaren hatsa ote da hitza ala hutsaren aurkako altxatuko hotsa edo hitza hauste arren utzitako hatza».

LABURRAK

Jai-Alaiain izan zuan ondore on ostean, noiz entzungo ote degu Mikel Urkolak Eibar aldizkarian agindu zigan diska?

Hotel Arraten margo erakusteke bat dago Lola Viteri, Piedad Arrillaga ta Tere Vildosolan lanekin.

Jose Albistegui Gallastegui jauna, E.E.U.U. etorri berria, Abel sendagintza edo Veterinariako leengo sari izan da. Zorionak.

Datorren ileko 6an, Arraten C. Deportiboaren eguna ospatuko da. Kezka taldeak dantza berriak aterako ditu.

Kruzetatar Odile

aizarna

ENGRAZI DEUNAREN EGUNA

Apirillaren 15ean jendetza aundi bildu zan «Santengrazi» mendia biltzen. Eguraldi bikaina, ibil giro zoragarria. Gazte talde txit ugaria. Azpeitiko mendizaleen emana! Auetakoak ziran geienak.

Engrazi deunaren eguna bezperatik ospatu, aundikiro ospatu ere. Aurrena, «Erri-Meza» benetan errikoa eta guzti-guztiena, Atxaga eta Gaztañaga emalle ziralarik. Esku soñuz eta txixtuz alaitu zuten Azpeitiko txixtuz, baita Franzesenatar Begoña eta bere taldea ere txixtuz. Bertsolariek ere esan ziguten itz egokj eta sarkorrik, guztion izeneko eskariak egitekoan: Lizaso eta Gorrotxategik badakite zer esan.

Gazte asko gure baselizan, eliza batean; ain gazte ez diranak ere asko, dana gazteturik. Elizkizun atsegiña eta bizigarria girotu genduan guztion artean. Ortara asko eragin zigun, jakia, Azpeitiatar Joxe Mariren alde eskeintzeak eta aren egunak.

«SANTENGRAZIKO AITONA»

Zan eguna izateaz gainera, bagenduan beste ospakizun bat ere, aurreko urteetatik esaten ari gina eta aurten burutu dana. Menditontorrek baseliza zaintzen duan aitonari omenaldia, alegia.

Gizon ixilla, apala, langillea, iztun alai, bene-benetako serbitzaillea. Maiatzaren 10ean beteko ditu 77 urte. Bitarte ontan zenbat joan etorri egin ote ditu bere etxetik Engrazi deunaren elizaxoraino?

1914garren urtean ipiñi zuten ordularia gure baselizan. Geroztik Jose Mari ibilli da ordulariari pixuak jasotzen. Eta ez astean bein; egun biz bat igo oi da, eguraldi onetz eta txarrez, utsegin gabe eta aspertzeko. Erraz esaten da: ia 60 urtez gora eta beera ibiltzea, ez da jolasa.

Eta dana esan dezagun, ez pentsa langite orrek aberasteko egokierarik ekarri dionik. Ez da izan diru truk egiña, ez eta sari billa egindako lana ere. Utsean egin digun serbitzua izan da, serbitzu leiala bezain zuzena. Inguruetako baserriak, artzaiak eta menditontorrek diran nekazariak, «Santengrazi»ko ezkillaren ordura ibilli dira 60 urtez eta alaxe dabilta gaur ere.

Orra or serbitzu bikaina, ez sari eta ez esker, ixillean eta iraupezez egindako serbitzu jatorra. Aurterapen arrigarrien aldi ontan aintzakitza artzen ez dana; irauketa zaratsuen garaian eskerririk ematen ez zaiona. Baiña benetako serbitzu txalogarria, eruduzat artekoa; itz eta zarata gutxi, erriak eta serbitzurik aoz aipatu ere ez, baiña EGIN.

Zin-zifnez zor genion Joxe Mariri omenaldi jator bat. Egin dioguna baiña askoz ohea zor zitzaion. Omenaldia ere, ordea, bera dan bezelako apala eta lagunartekoa gertatu da.

Ormatik zintzilik agerian ipintzeko eman zion orogarririk onelaxe zion bertsotan:

AZPEITIA ETA ODRIOZOLA'TAR JOXE MARI

ermita-zai leialari

—oOo—

Engrazi Deunan mendi-eliza ainbat urtez zainduari, mendi-ordua eta ezkillazuzen erabillari; menditarrentzat serbitzu milla egin ditun aitonari, sari gabeko gizon ixilla, torizu esker opari.

—oOo—

«Lagun-Onak» Azpeitiko mendigoizaleek eta Aizarnako erriak, esker onezko OROIGARRIA.

Aizarnan 1973garrengo apirillaren 15ean.

Zestuako Udaletxeak ere opa dio bere saritxo: ordulari dotorea, be-roa eta eguraldiaren aldatetarik adierazteko tresnaz ornitua. Azkenik, eguneroko joan-etorrietan erabil dezaken makillatxo soil bat.

Urte askotan irau den bezala gure Joxe Marik bere langintza ortan.

baztan

EUSKAL-BESTA

Apirilaren 22an Bazko egunez, Ili-rrren Soka-Tira Txapelketa eta Ili-garren Makil-Tirarena egin dira Elizondan. «Iriarte» frontoia bete bete jendez, Mila ikusliar inguru barnean kokaturik.

Baztango Xapelgo hontan zortzi sokatirari talde ari izanak dira: Elizondo A, Elizondo B, Lekaroz, Elbete, Oronoz, Amayur, Aviacion, USAF (Gorramendiko amerikanoak).

Lehenbiziko tiraldiak egin ondoren, Oronoz, Amayur, Aviacion eta USAF galtzale gertatu, bertze lau taldeak aurrera pasa zirelarik.

Lauen artean Final-erdiak eta suertea bota ta ondoan, Elizondo A Lekarozaren kontra eta Elizondo B Elbetearekin suertatu zitzairen.

Elizondo B eta Elbetearek ikaragarriko tiraldiak egin ondoren, Elizondarrak bietan irabaztela. Lehenbiziko tiraldiak minutu bat eta 33 segundu irau zuen eta minutu bat bigarrenak. Bi taldeak leher eginik eta indargabeturik gelditu ziren. Gero Elizondo A eta Lekaroz zein-gehiagoka eta Elizondarrak neke haundirik gabe irabaztun.

Azkenik Finala Elizondoko bi taldeen artean eta oraingoan ere igaz eta aintzineko urtean bezala Elizondo A irabaztela eta Txapelkun. Zorionak.

Gero hirugarren eta laugarrenarako Lekaroz eta Elbete eta Lekarozarek irabazi.

TXAPELDUNAK. ELIZONDO A

(Hirugarren urtea)

Diputazioko Saria

Bigarrenak. Elizondo B

Baztango Balleko Saria

Hirugarrenak. Lekaroz

Makinari Alfako Saria

Laugarrenak. Elbete

Banco Vizcayako Saria

Makil-Tirako Txapelketan zazpi gizonen neurtu zituzten beren indarrak eta aurten ere denen gainetik Mikel Lasa Elizondarra Txapelkun. Zorionak.

Jose Antonio Antoñana Iruñekoak. Denei gure goresmenak.

Jokoen tartetan Arizkongo mutil-dantzariak saio ederra eginik, Baztango dantzak erakutsi zizkiguten.

Gure zorionik beroenak soka-tirari talde guzietan eta goresmenak bestaren antolatzaileei.

BERTSOLARIAK

Nafarroako Diputazioko «INSTITUCION PRINCIPE DE VIANA»-ren laguntzaz aurten ere bertsolari besta eder bat egin gogo dugu. Jai hau Elizondoko Antxitoneko trinketean eginen da, Maiatzaren 27an eta arratsaldeko 5etan.

Lau bertsolari ariko dira. XALBADOR, LASARTE, GORROTXATEGI eta IGARZABAL.

Jai hontan biltzen dena Elizondoko Ikastolarako izanen da. Gure eskualdean Euskal Herriko beste leku guztietan bezala bada bertsoetako zaletasuna, hemengo jendeak bertsolariak maite ditu eta badugu uste egun hortan Antxitoneko trinketea leporaino beteko dela, denak etorriko baitira gure bertsolarien artera arratsalde goxo bat igarotzeko nahikeriarekin.

Maiatzaren 27an arratsaldeko 5etan, Antxitoneko Trinketean.

M. IZETA

irakurleak

mintxo

«AUTO-ESCUELA» DELA TA...

Berebila manejatze baimena lortu nahirik «auto-escuela» batean hasi berria naiz. Denek edo gehienek dakizuten bezala eratako esaminak iragan behar dira baimen hori eskuratzeko. Kominoan ibiltzeko beharrezko diren zenbait jakingarri teoriko eskatzen dituzte lehenengoan eta lehenengo esamina hori ongi burutu duenak praktikan berebila nola erabiltzen duen neurtzen dute bigarrenean.

Bigarren erako esamina horretaz nik ez dut ezer esateko. Baina lehenengoari buruz mintzatu nahi nintzake gure rerritar batzuri planteatzen zaian arazo bat aipatuaz.

Badakigunez baserriar askok eta askok beharrezkoa dute berebila. Baina lehenengo pausoa «auto-escuela» batera joan, eskatzen duten hainbat diru bota —probeentzat ote?—, eta karneta lortzea izanen da.

«Auto-escuelan» ikusiko dituzu zenbait baserriar, oso gazteak ez direnak, baina berebila nahi eta nahiezkoa dutenak. Hori horrela delarik, beste egia borobil bat jaulkitzen da atzean idatzitako esalditik: alegia, baserriar hoietatik askok eta askok —nere aitak 11 urte bete orduko utzi behar izan zuten eskola— ez dutela «auto-escuelako» liburuxka —orain arteko denak erderaz atera dituztela uste dut— behar bezela ulertzen. Irakur zazu mesedez hitz zerrenda hau: excepción, aglomeraciones, deslizante, copiosamente, proyectarse guijarros, intersección, cerciorarse, medidas a adoptar, holgadamente, prioridad de paso, panorama pintoresco, señales preceptivas, condiciones atmosféricas; gelditu nadin Z. Argiako orrialde osoa bete ez dezadan.

Ezer egiten ote dute Euskal Herriko «auto-escuela»-k arazo honi konponbide bat emateko? Orain dela uste batzuk, ezagutu duen arazo honetaz jabetzen zen «auto-escuela» bat eta eguneroko mutil gazte euskaldun bat joaten zen karneta ateratzeko ikasi behar den liburuxka horren zenberit hitz eta esanahi euskeraz adieraztera. Mutil harek herri hartatik irten beharra izan zuen eta ez dakit ordezkorik bilatu duten.

«Auto-escuela» denek hantzakotzat hartu behar lukeen arazoa dela uste dut hemen ukitzen dudan hau. Hala ere, nere gelako ixiltasuna puskatuaz, «auto-escuelako» nagusi askoren abotsak dotoz bat eginik orain nire barrietara: «eta nork ordaintzen dik maixu euskaldun hori? Lehen ez zeuzkeagu nahiko gastu eta...».

Niere erantzuna:
1) Gizona diruaren gainetik jarri behar dugu.
2) Zure diru zakuaren muturra horren estu lokarritzen duzuna baldin bazera, lan hori duan (debalde) egingo luke tenak ere bilatuko zenituzte.

3) Euskal Herri bizi gara. AIERDI

Madrilen estudiantzen ari bazera

Madrilgo familia batek unibersitario euskal neska bat nahiko luke arratsaldetan aur zaintze eta beste zereginetan lagun dezaien. Kondizioak oso interesgarriak dira eta giroa atsegina.

Ontaz norbait zaleturik balego idatzi beza Zeruko Argiara.

Musikastea Errenterian

MAIATZAREN 14tik 19ra

ASTELEHENEZ, 14an: Hasiera: "Lehengotasunari eusteko bi-dea" gai duelarik Tomas Marco-ren hitzaldia.

Euskal Musika Mintegia: a) Txistuaz, Xabier Hernandez Arsuagak; b) Koruak, Iñaki Erauskinek; d) Orkestak, Xabier Bello Portuk; e) Musikagileak, Franzisko Eskudero. Juan Mari Lekuonak zuzenduko du elkarrizketa.

ASTEARTEZ, 15ean: Txistuaren eguna.

"Txistuaren bizitza": a) Txistuaren sorrera; b) Txistuaren al-daketak; d) Txistu-banda; e) Txistua, zer?; f) Gaurko musikari itsasteko bideak.

Hitzaldia: Jose Luis Ansorenaren gain. Txistu-doinuak: Maurizio Elizalde, Jose Luis Garai, Errenteriako Banda eta Donostiako taldearen gain.

ASTEAZKENEZ, 16an: Koralen eguna.

Irungo "Ametsa", Donostiako "Ereski", Oiartzungo "Lartaun", Donostiako "Santa Zuzilia", Zarauzko "Oleskariak", Donostiako "Schola Cantorum", Añorgako "Ertizka", Errenteriako "Karnabak" abestuko dute.

OSTEGUNEZ, 17an: Euskal musikari klasikoak:

Juan Krisostomo Arriagaren Lehenengo laukotea, Jose Maria Usandizagaren euskal laukotea. Jesus Guridiren bigarren laukotea. R.T.V.-eko "Cuarteto clásico"-ak abestuko ditu.

OSTIRALEZ, 18an: Euskal musikari aurrerakoak.

Luis de Pablo, Camelo A. Bernaola, Agustin Gonzalez Azulu, Tomas Marko, eta Maria Luisa Ozaita-ren obrak abestuko ditu Barcelonako "Diabolus in musica" orkestak Joan Guinjoan-en zuzendaritzapean.

LARUNBATEZ, 19an: Errenteriako Ikastetxetako musika-taldeen saioa goizean:

- Pio Baroja Ikastetxea
- Calvo Sotelo Ikastetxea
- San Agustin Ikastetxea
- San Jose Ikastetxea
- Telleri-alde Ikastetxea
- Don Bosco Ikastetxea
- Orereta Ikastetxea

Bigarren zatian Donostiako "Corazon de Maria"ko mutikoak. Gaur: MUSIKASTEAREN bukaera. "Andra Mari", Iruineako Orfeoia eta Bilbaoko Orkesta, Anton Larrauriren "Contingencias" eta Mozart-en "Requiem" ematen.

beasain

OKERRAK ZUZENDUAK

Bai! Apirilaren 29-ko. Zeruko Argian eta Beasaingo berrietan, AUZO AURREZKI ONTZIAK gure herrian ospatu zuen Batzarrean ARABA taldeak esku hartu zuela genion. Hau gure akats bat izan da eta barka zaigu irakurleak. Hain egoki abestu eta hain doinu bitxiak jo zizkigutenak Arabatarrak ziren bai, baina taldearen izena, heurak azkena abestu zuten abestiarena bera da, hots, AMETS. Bera, AMETS taldearentzat gure txaloak eta laudorioak eta bidenabar barkatzeko eskatu nahi diegu lerro hauen bidez.

ARRAUTZA-OPILA (TORTILLA)

Bai alajaina! Entzun ahal izan dugunez, 500 kiloko arrautza-opila edo tortilla egiteak izan behar dute Beasainen. San Inazio kaleko zenbait dendari (inguruetakoak lagundurik) eta biztanle markaren bat jartzeko asmotan izan behar dugu. Galicia-n 300 bat kilokoa egin zutela edo... ta hemen 500 kilokoa egin behar omen dute. Bere diametroa 4 metrotakoa izanen omen da. Zartagia ere bada, aproposa behar horretarako eta Ordiziako pertzikilaren bat ari omen da egiten. Herriko zein puntutan eginen duten ere oraindik zihurki ez dakigularik (hau argitaratzerako behar bada bai),

arrautza-opila bere puntuan irautzeko altzagailu edo gruak behar omen dituzte. Jakin ez duguna, berori erretzeko erabili behar duten sistima da. Nolanahi ere, berealdiko alamartsoren bat ikustekoak gara noski. Ongi egiten denean, ikusle guztiei dohan emanen omen zaie arratsalde horretako ahazkari edo merienda. Gaiet buruz, batek lursagarrak jartzten omen ditu, beste batek arrautzak, hirugarrenak; olioak, laugarren batek tipulak, gatza ere norbaitek bai noski eta zer esanik ez, zartagi, su ta altzagailudun kamioak. Dena den, ikuskarria izango da noski! Munduan zehar zabaltzen bada berri hau, ez gara gero harrituko mixio lurralde eta gose-teak direnetaroko lehen baino ere gehiago eskatzeaz. Ez horixe!

ESKELAK

Denok dakigu noski inoiz ikusten ditugunez, «El Diario Vasco» eta «La Voz de España» egunkariak ere eskelak euskeraz ekarri ohi dituztela. Baina era berean, ez bide dakigu gaztiok (frogatu dugunok zerbait jakin arren) heurak eskuetara euskeraz jarrita ematen ez bazaie ez dutela argitaratzen. Españolez, telefonoz ere berdin hartzen dituzte azken orduan, baina euskeraz telefonoz hartzeko prest denik ez bide omen dute. Lotsagarrikeria ere ez da txikia! Bi egunkari horiek, hor dabilta zein baino zein zenbait artikulotxo euskeraz argitaratzen eta heuren artean euskeraz eskela bat hartuko duenik ez! Garaia dugu eskatzeko!

MURUMENDI

zeanuri

PELOTA TXAPELKETA

Aurten ere antolatu dogu esku-pelota txapelketa Zeanuriko gazteok, oraingoan XVgarrena, udaltxeko laguntzagaz diru kontuetan. Inoiz baino jente geiago doguz. Orrez gainera beste maila baten gazteak 18 urte eta gero ume-txoak edo mutikoak 15 urte arte. Guztiz, danen artean, aun pelotari.

Baia orrenbeste pelotari euki-teak ez deusku emoten buruko miñik baiña bai denborak, ze frontoia leor barik denku, eta euria egiten dabenean zerrautzagaz sekatu bear izaten dogu.

Oraindik neza da suspenditu partidu bat be baiña ainbat izerdi bota dogu frontoia sekatur. Ia udaltxeak noiz iminten deuskun leorra frontoari orrelango buruko miñik ez eukiteko.

ANAI SEGUNDO

Naiz eta "Amatiño" ezagutu ez, bai beinepein izenegaz, neu be orain amar urte Oronoz-en ibilli nintzan batxillerato ikasten. An ezagutu genduan Anai Segundo, naiz eta niri eskolarik emon ez. Gizon, zintzoa benetan, bai eskolan eta bai eskolatik kanpora.

Naiz eta emendik eroan esku-pelota zaletasuna an geiagotu jakion Anai Segundok antolatzen ebazan esku-pelota txapelketagaz. Nik ezin neban parte artu txapelketan baten be, ze amabost urte arte bakarrik egon nintzan an, baiña bai jokaturten genduzan geure artean ainbat partidu. Orain uste dut batek baiño geiagok jakingo dauela, bai Gipuzkoan, bai Nafarroan eta bai Bizkaian, nor dan Zeanuriko Sabin. Eta Anai Segundok artu dagiala besarkada aundi bat emengo orrietatik, ze ezin genduan joan bere omenaldira Logroñora.

GONTZAL

Au, gazte au, naiz eta oraindik abeslari ezaguna ez izan, uste dot aurrerantzean jente askok ezagutuko dauela. Bera Zeanuritarra da eta 17 urte bakarrik daukoz, baiña orain dala illabete Durangon presentatu da leenengoz jentearen aurrean abestuten eta leenengo saria atera dau. Aurrerantzean Portugaleten eta Beasainen presenta-

tzeko asmoa dauko eta uste dot leku guztietan toki onean utziko dauala bere izena eta Zeanuriren izena, ze ondo daki abestuten. Zertan esan bearrrik ez dago euskeraz abestuten dauala.

SAN ISIDROTAKO JAIK

Aurten dakizunez, jaiak gazteak eta udaltxeak batera antolatzen doguz. Jaiak lau egunetan izango dira: 12an, 13an 14ean eta 15ean. Naiz eta ezin izan dogu euskal konjuntio bat topatu, ze Azpeitiko "Egan" ez dago osaturik Xabier abeslaria Caceres-en dagoalako, uste dot jaiak euskal usaina badaukiela. Ona emen gutxi gora beera zer egongo dan:

12an: Txistulariak, albokariak, esku pelota partiduak eta gaueko

amarretan aintziñako moduan, ezteguak. Au da, orain eun urte egiten ziren moduko eztegu errepresentaziño bat.

13an: Txistulariak eta eguerdian sokatira Zeanuriko eta Zeberio-ko gazteen artean. Arratsaldean esku pelota partiduak eta txistulariak.

14ean: Txistulariak eta musika.

15ean: Goizean meza nagusia eta ostean ganadu edo abere feria, nafar-miña ez badago aberren artean. Gaiñera makinaria-erakusketa. Arratsaldean pelota partidu on bat, Zeanuriko Bengoetxea eta Basterretxeak, beste kanpoko biren aurka; eta gero ostean txistulariak eta musika konjuntio bategaz, egun guztietan bezela.

SABIN

MITXELENA

ORDULARI ETA BITXITEGI
Zatuz gugana anuntziõ honekin
eta KANARIAS-en baino merkeago
erosiko duzu zure erlojua

Matxin Arzu, 1

ONDARRABI

"badator udaberria"
TRESILLOAK...oso merke

"1973rako berri berriak"

MOD. ITALIANO 15.375 pezeta edo hilean 630

MOD. SORRENTO 22.750 pezeta edo hilean 750

MOD. SORAYA 29.550 pezeta edo hilean 950

EZ DAUZKA BESTE INORK

AMUEBLADORA COMERCIAL HISPANIA

MORAZA, 3 eta 14 an

SAN MARZIAL, 12 an

DONOSTIA

IRUN

ERAMAN ETA EZARRI DEBALDE GIPUZKOAN ETA NAFARROAN

askoz ere merkeago eskura ordainduz

CAJA LABORAL POPULAR

(LANKIDEEN AUZO-AURREZKI ONTZIA)



— DIRU - PRESTAKETA ELKARTEA —

Aurrezki kutxa onen laguntzak: — gizarte-saillean
— diruketa-saillean
— lantegi-zuzendaritza saillean

ZUK AURRERATUTAKO DIRUAREN BIDEZ, LANGILLE ASKORI, BERE LAN-SARI
PREMITIK IRTETZEKO BIDEA SORTUKO DIEGU

Laguntza ezin obeak, etekin eta irabazirik audienak eta illeroko sari ederrak eskeintzen ditugu

Gure landolak erri auetan idikiak dauzkagu:

Mondragoi	Zumarraga	Bilbo	Ermua	Munguia
Aretxabaleta	Elgoibar	Legazpia	Eskoriaza	Yurre
Elorrio	Markina	Irun	Izarra	Bermeo
Barakaldo	Bergara	Durango	Ondarrabia	Lasarte
Ondarroa	Altsasua	Amorebieta	Galtzaraborda	Enenderian
Andoain	Eibar	Azpeitia	Lekeitio	Santurce
Plazentzi -Soralue-	Tolosa	Emari	Llodio	Zumaya
Oñati	Pasai San Pedro	Zarautz	Recaldeberri	Donostia
Ormaiztegi	Errenderi	Sestao	Agurain	Iruña
Beasain	Billabona	Ordizia	San Andres	Deba
Gernika	Gazteiz	Antiguo -Donostia-	Azkoitia	Anzuola

EZKONTZA PRESTATZEKO HITZALDIAK BEASAINEN

1973-ko MAIATZA

HILAK 21. ASTELEHENA

Gaia: Ezkontzak gizartean.
Hizlari: Joxe Bernardo Garmendia.

HILAK 23. ASTEAZKENA

Gaia: Ezkontzaren moralak.
Hizlari: Aita Dionisio Amundarain.

HILAK 24. OSTEGUNA

Gaia: Giza-emakume soinen azterketa.
Hizlari: Ramon Fernandez Etxabe sendagilea (eme-ikerle, ginekologo).

HILAK 25. OSTIRALA

Gaia: Jaiotza neurketa.
Hizlari: Ramon Fernandez Etxabe sendagilea (eme-ikerle, ginekologo).

—o—

Tokia: "CLUB DE LA AMISTAD" (San Inazio kaleko 7-gnean.)
Ordua: Arratseko 8-rak.

ELIZAREN BERRI ELIZA INSTITUZIO (II)

ESTIBALIZKO BENEDITAR BATEKIN ELKARRIZKETAN

Maiatzaren lehenak Estibaliza eraman nau. Jende dexente zen menditontor hartan. Bertako eliza berritu dutelakoak zirrikatzen ninduen. Egiaz, gustatu zait egin duten lana.

Baina, ez nitekeen harrizko elizaren ikusmira hutsean gera. Eliza biziaren funtsezko bizigarritasuna beste nonbait aurkitu nezakeelakoan joan nintzen.

Joan den astean Taizé-ko giroaz zerbait eman nuen, Estibalizetaz eman nahi nuke oraingoan. Hartaz, Taizé-taz, urrun samarretik mintzatu nintzen; honetaz, Estibalizetaz, hurbilagotik. Hurbilegitik? Arrisku bi nabari ditut: gauza ez-eguzunaz mintzatzekoa, kasu batetan; hurbilegitik gauza batetaz mintzatzekoa, beste honetan. Eta funtsean, azken kasuan, alderakoi samar mintzatzekoa, mutur batera ala bestera jotzekoa, ikuspegi hertsuegi jardutekoa.

Kezka horiek nere baitan, idatzi dut ene idatzi hau. Kezka horiek bortxatu naute gauza eta ikuspuntu asko lumaren puntan gordetzerara.

Halere, egun horretan Estibalizaren zen zalapartaren artean, bertako fraile bati tarte bat har erazi diot ene galderei erantzuteko. Estibaliztar suharrak bera. Ene izkribuak jarraitzen omen ditu Z.A.n, eta hasieratik, "hire euskara zaila zaidak" esaka hasi zait, "eta erdaraz egin beharko diagu elkarrizketa hau; euk moldatu gero derizkioan gisan". Hona bada. Erdetaz jardun gara. Eta neure "zuzioxoan" eman dut euskaraz.

—Zenbat denbora daramak Estibalizen?

—13 urte; 1960an sartu ninduan hemen, komentuan.

—Nongoa haiz izatez?

—Gasteiztarra.

—Eta zer dagik hemen, Estibalizen?

—Soy el «a-parejador», esan dit irrifarrez (pareja-egile esan nahi zuten).

—Nolaz bada? Ezkontzarik ba ahal duzue hemen, ala?

—Ba, bai. Urtean ehunen bat, bai.

—Nolaz etortzen duk hainbat jende honera ezkontzera?

—Ba... debozioz. Estibalizko Andra Marienganako debozioz. Antzinako debozioa duk hori hemen.

Estibalizaren XVI mendean eginko ezkontza baten dokumentua ba diagu.

—Eta tradizio horri eusteko, alde on eta baikorrik ikusten ahal duzue?

—Ba, bai. Ezkontza-zeremonia hutsean geldituaz gero, ez. Baina, ezkontza hori dela eta, gertuketarako aukera bikaina izaten diagu.

—Zer-nolako gertuketarako gero? Ez diat entzun Estibalizaren ezkontza-kursilorik egiten duzenik.

—Ez, kursilorik ez. Hor zehar egiten diren talde-kursilorik ez; guk bikoteak bakarrik hartzen ditiagu. Eta hori lan pertsonalagoa duk. Eta ezkongaiak ere gogo onez hartzen diate lan hori.

—Eta lan hori nola lotzen diuzue zuen moje bizitzari?

—Ba... gure gain saildutegi bat daukagunez...

—Baina, arrazo horri ez ahal derizkiot artifizial samar?

—Ez...

—Nolaz ez?

—Ba... jendea mila asmoz etortzen duk hona: erretiro asmoz, ikasketa asmoz...

—Eta beste zereginik?

—Bai, motel. Gasteizko euskal bataio guztiak hemen egiten ditiagu.

—Nolaz hori? Ez ahal derizkiok, Gasteizko elizaren aldetik euskal nortasuna gutxiesten dela hori, edo euskaldunak marjinalatzea berderen?

—Ez diat ikusten horrelakorik. Alde batetik, Gasteizko apaizek bazekitek euskaraz egin nahi dutenek non egina badutela...

—Baina, horri "patxara ederreko" jarrera zerizkiot. Hori duk errazena. Ez duk uste?

—Ez. Norbaitek Gasteizen bertan egin nahi badu hori, badik horretarako posibilitaterik.

—Ez diat uste gauza berdina denik: gauza bat duk erregela bezala egitea, eta beste bat salbuespen edo exzeptzio bezala egitea;

horretan lege soziologikoak kontuan hartzekoak hitzuke. Baina, gatozen harira. Ikusi dudanez, ondoko berriztatu duzue Estibalizko eliza hori. Ez zirudik lehengo. Nola moldatu zarete hori egiteko?

—Badakik. Estibalizko Ama Birjina Arabako zaindaria edo patroia duk. Horrez gero, probintzia mailako saildutegi duk. Eta Arabako Diputazioa esku-zabal ibili duk.

—Esku-zabal? Gehiegi galdegitea ez baduk, zenbatsu kostatu duk bada...

—Bederatziren bat miloi, uste diat.

—Gainera, probintzia mailako saildutegiak mintzatu haiz. Zertan geratzen duk, hire ustetan, Elizaren eta ordena politikoa berezuntza, Gotzaiak azken aldi honetan aipatu edo dutena? Nolaz lotzen dituzue biak?

—Egia esan, ez diat horretaz irizpide pertsonalik; ez ziat gehiegi pentsatu arazo horretaz.

—Bederatzi miloi kostatu dela esan duk. Ez ahal derizkiok zuen eliza horretarako gastu gehixoa dela?

—Andra Mariaren saildutegiak hala eskatuaz gero, ez diat uste gehiegizko denik.

—Eta gaur zer jai ospatzen duzue bereziki?

—Ba, gaur, aldare nagusiaren sagaritzea diagu. Eta, gainera, beneditarrak Estibaliza etorri zirenezko 50. urtea ospatu nahi izan diagu bidebatez.

—Jende gurutzedun eta eraztundun asko ikusten diat. Zer dela eta abate horiek guztiak?

—50 urte horietan Estibalizekin zerikusi handiena izan duten beneditar elkarteak gonbidatu nahi izan ditiagu jai honetara. Horrela, Silotik, Leiretik, e.a.tik etorri dituk.

—Eta datorren igandean ere zerbait baduzuela ikusi diat kartel handi horietan. Zer duzue xuxen?

—Maiatzaren 6 an, Estibalizko Ama Birjina koroatu zeneko 50. urtea ospatzen diagu.

—Eta Estibalizko ba ahal duzue zerikusirik euskal arazoekin?

—Ba, bai. Uste diat, Estibalizko beneditar elkarte oso sensiblea dela euskal arazoekin.

—Zertan hezur-mamitzen duk sensibletasun hori?

—Hori konkretatzea gauza zaila duk; baina, adibidez, gure arteko batek Gasteizko Ikastolan nola-halako partetik badik.

—Horretara mugatzen ahal duk zuen sensibletasun guztia; ala, beste eraginean bat ba ahal duzue Euskal Herrian?

—Baietz uste diat. Guztien gain, jakina, Araban diagu geure zeregin; baina, Euskal Herri osoan ere bai. Alde guztietatik etortzen dituk ekkursioak, ikastetxeak...

—Baina, talde horiek zein eragin duzue? "Bar" bat irekitzen diezuela?

—Tira, tira, motel. Ez zetozeke hona denbora-pasa hutsean; ez eta jolasera bakarrik ere. Uste diat, Estibalizek baduela jende horrentzat izpiritu-esanahiren bat.

—Zer-nolako esanahia? Jainkoa izadi edo paraje eder delako zerbait, aia?

—Horiek dituk ateraldiak, motel! Hori guztia, izadi edo paraje eder eta beste, Jainkoaren errainu duk. Jainko pertsonalarengana bide duk, ene ustez.

—Oraingo honetan, sakon samar jo diagu. Goazemak aurerra. Hori ahal duk zuen egiteko guztia?

—Adarra jotzeko gogoz etorri ahal haiz gaur? Ez ahal duk eza gutzen gure biziera, ala?

—Baina, hire ahotik jaso nahi nuke ene irakurleentzat.

—Ba, igandetan ere, jendetza handia biltzen duk hemen. Eta ez duk denbora-pasa hutsean etortzen. Bere ahotik entzuna diagu, hemengo predikua baduela berezitasun bat; konkretuagoa dela...

—Ez haut nekarazi nahi. Beste galderarik izanzen nuke; baina, hona azkena: Elizarako hartu duzun diru-laguntzak ez ahal zaitue agintezibilaeren morrontzara edo eramaten?

—Bai, hein batetan, bai. Baina, bestalde, esan behar diat, ez gara ibili laguntza bila, «gure» eliza apain dezaten, arabar herriari saildutegi apain bat antolatzearen bajzik.

—Oraingo hau azkena: Nere azken artikulua Zeruko Argian Taizé-taz egin nian. Hartan bizitasun bat nabari huen. Bestalde, nere elkarrizketalariak Euskal Herrian antzeko zentzoren baten ametsa agertzen zian. Zer derizkiok? Estibalizek beteko ote likek zulo hori?

—Ez zegok gonbaratzerik; biak oso desberdinak dituk.

—Oo—

Egiaz, ez dago gonbaratzerik. Halere, buruak eman dit, desberdintasun aldetik gonbaraketa bat egiten ahal litzakeela. Estibalizaren entzun dut Meza Nagusia. Ama Birjinaren irudia toki garai-garaiaren ezarria ikusi dut. Baina, burua alde batera eta bestera bihurtu, eta gurutzerik ez inon. Gero, meza ondoan, zoko batean atzeman dut: paretara ertz batean; garai batetan prozesiorako erabili ohi zen horietakoa. Probisionaltasun batean han emana. Eta hauxe etorri zait burura: Ama Birjinari arazoak arriskua ez ote dagoen Estibalizen. Agian, aldare eman nahi izan du te Kristoren irudi bikain bezala; agian, amaitu gabeko berriztatze-lanaren arazoa izan da. Dena den, Mezatan Ama Birjinaz mintzatzeko moduak berak ere, halako gauza xelege baten inpresioa egin dit. Inolaz ere, ekumenismo kutsu gutxi iritzi diot, bai batari, bai besteari. Eta esan dezadan, ekumenismoa ez dudala ipintzen, beste kristau Elizei lausengaka aritzean, kristautasunaren funtsezkoari atxikitzen baizik.

Hori izan da, funtsean, Taizé-taz eta Estibalizetaz ene baitan egin dudun kontraposizioko gonbaraketa. Agian, beste mailakorik ere eginen ahal litzateke. Utz dezadan hori beste norbaitentzat.

AMUNSA

ITZIARKO IBILALDIA

Maiatzaren 19an, urtero egin ohi den Itziarko gau ibilaldia egingo da. XXI izango da aurtengoa.

1952 urtean lehen aldiz egin zenetik, esan bezala, urtero egin ohi den ibilaldia da. Gipuzkoar gazteriak Ama Birjinarengana jaieraz eta otoitzean egin ohi den ibilaldia. Hasiera Ondarretako zabalguneko edo explanadatik emango zaio arratsaldeko 8etan. Gero Igeldora igo, eta Mendizorrotx egaletik Oriora joko du martxa honek. Han halako atsedean aldi bat hartu eta berriro Zarautzik barruna Getariara iritsiko da, Urkizu hauzotik zehar Zumaira atsedean apur bat hartuaz.

Iñor min hartuta edo balego hemen behar duen laguntza jasoko luke. Goizeko laurak aldean aterako da Zumaiatik eta Arrua pasa ondoren Itziarra iritsiko dira. Hemen goizeko seieta meza izango dute laguntza eta grazia guztiagatik Zeruko Amari eskerrak emanaz.

Meza Santuan, Euskalerraren ezaugarrienetakoak diren dantzariak, txalaparta eta txistulariak tartean izango dira, euskaldun gazteak euskaltasunez meza eskaini dutelarik. Oraindik bai baita euskal gazteria jatorrik Euskalerran.

Exegetara itzultzeko autobusak han prestatuak egongo dira, lehenbai lehen erromes ibiltariet atsedena har dezaten.

Ibilaldian zehar, hizlariak uenari dagozkien gaiak erabiliaz azterketa bat egin dezagun, gairik eskainiko dute. Tartean, aurrez grabatutako zenbait musikak ere erromesaren buru bihotzak otoitz giroan jar daitezten lagunduko diote.

Zeruko Amari bere eskaintza adierazi ondoren Agur Jesusen Ama bestuaz ibilaldiari amaiera emango zaio, hurren urtean berriro itzultzeko asmo sendoa hartuaz.

Aurreko astean zera genion: kristau sinesmenak berezkoa duela elkartekoera. Edozein elkartek, berriz, organizazio moduren bat beharrezkoa du. Eliza instituzio bezala osoki arbuatzea, beraz, ez da oso bidezkoa kristautasun jator batetan. Eta bukaeran galdera hau egiten genduen: orain arte esandako guztiak bidezkotzen ahal du Elizak gaur egun duen organizazio era, instituzio era, Elizaren gaur eguneko eraketa?

2. ELIZAREN GAUR EGUNEN ERAKETA. Ez dut uste jadanik inor harrituko denik honako hau irakurtzen baldin badu: Jesusek ez zuela inola ere Kardenal, Gotzai, Artzapezpiku, kuria, kongregazione, Parroko edo Bikario eta koadjutore eta horrelakoetan pentsatu. Aurreko lan batetan Jexux Mari Mujikak esana du Jesusen asmoa ez zela Eliza sortzea izan. Jesusek Eliza bat sortzeko asmorik izan ez baldin bazuen, gaurko Eliza hau, bere hierarkia guztiarekin ezin berak asmatua izan. Horregatik da bidezkoa egiten dugun galdera: beharrezkoa ahal da eraketa konkretu guzti hau? Zenbateraino dago eraketa hau justifikaturik?

Punduz pundu joan gaitezten.

—Jesusek bereziki nahi izandako eraketa modu konkreturik ez dago. Sentidu hortan, beraz, Elizaren erakunde partikular guztiak dira halamoduzkoak, hau da: Elizaren erakunde partikularak ez dira nahitaezkoak, aldakorrik baizik.

—Jesusen jarraitzaileek, osatutako lehen elkartetik gaur eguneko Eliza den elkartera —organizazio edo eraketari bagagozkio— aldaketa haundiak nabari dira. Jesusen ikasleek osatutako lehen elkarteak berak ez ziren guztiak berdin eratuak: kristau juduak eraketa modu bat hartu zuten nagusiki, S. Paulok erakitako elkartetan beste eraketa modu bat nabari da; bigarren gizaldian ziren kristau elkartetan hiru eraketa modu diferente aurki ditzakegu gutxienez.

—Elizaren eraketak karguarekin zerikusi haundia du. Gure Eliza karguarekin baterik dago. Kargu hauen elkarren arteko ordenak eta eraketak ematen dio Eliza instituzioari bere aurpegi berezia. Baina Elizaren kondairan, kristautasunaren kondairan karguaren ulermena problema bat izandu da beti. Gaur egun bertan Eliza bakoitzak karguaren ulermen ezberdin bat du; protestanteek ez dute katolikoak bezala ulertzen eta ortodoxoen ulermena ez da protestanteena bezalakoa.

—Zer da kargua, zertan datza, zer esan nahi da hitz horrekin? Hitz horrekin zerikusirik duten beste hitz batzuek aipa ditzagun, gauza argituz joan dadin: eginkizuna, ahalmena, deia. Kristau sinesmenean Jesusengan dute gauza guztiak hasiera. Jesusek bazuen eginkizun bat Jainko Aitarekin deiarri erantzutean jasotakoa. Jainko Aitagandik eginkizun hori jasotzean, eginkizun hori betetzeko ahalmena hartu zuen Jesusek. Ahalmen hori gizoni gizia —benetako bizia: salbazioa— emateko ahalmena zen. Ahalmen hori espirituzkoa zen eta ez zegoen kargu bati loturik: Jesus ez zen, esate baterako, juduen apaiz nagusia, edo erregea; ezta juduek beren erlijioan zituztenetako irakasle edo igarleetako bat ere. Jesusek gizaldiz gizaldi batak besteagandik jasotzen duen kargu-moldeak hautsi egiten ditu. Jesusek ez du tradiziozko karguren bat jasotzen, Jainko Aitarekin dei eta eginkizun bat baizik.

Jesusengan sinesten dutenak aske, gizon aske eta espirituzko bihurtzen dira, gizon berri. Hauek osatzen duten elkartean ez dago kargurik. Garrantzia, apostoluek dute, Jesusen pitzeuraren lekuko direlako. Baina garrantzi hori apostoluekin berekin bukatzen da. Gainontzean Jainkoagandik hartutako doai bereziren bat zuten gizonak bakarrik zeuden. Baina hauek ez zuten kargurik, Jainkoaren doai hoiek ez zuten kargurik osatzen, batengandik bestearengana transmititu litekean kargurik alegia.

—Lehen elkarteak beraz, batez ere S. Paulok osatutakoak, kanpotik ezarritako ondunurik gabekoak ziren, eratu gabeak sentidu hortan, askeak, Jesuskristogan lortutako askatasunean.

—Urteak igaro ala eta kristau sinesmenean Jesusek lortutako askatasuna ez baina askatasun horren iturri den Hitz eta hitz honen belunaldietan zehar zintzo gorde beharra garrantziko bihurtu zirenean, orduan sortu ziren transmititu ahaleko karguak. Kargu hoiek tokian tokiko itxura hartu zuten; elkarte kristautan judu elkarten eraketan oinarriturik, bestetan berriz elkarte biza-paganoetako tradizioetan oinarriturik (gekertar kulturaren influentziapekoak). Horrela eraketa modelo ezberdinak aurki ditzakegu Erroman, Antiokian (Sirian) eta Asia Txikiko elkartean.

Zertara dator guzti hau? Artikuluaren hasieran hau zen gure arazoa: Elizaren eratu beharra eta behar hontatik sortu den instituzio konkretu hau. Arazo honi buruz hau esan daiteke: Elizaren eratu beharrak Jesusen (eta Apostoluen) ahalmenean eta elkarte-gizarte izatean da bere justifikazioa. Jesusek ez zigun eratzeko horren modelorik utzi, ezta gutxiago ere. Lehen garaietan kristau elkarteek ez zuten eraketa haundirik ezagutu. Eraketa beharrezkoa bihurtuz joan zen neurrian modelo bat baino gehiago sortu zen. Modelo hoietan kultur-influentzi desberdinak nabari dira. Modelo hoiek kondairan zehar batzen eta itxura hartzen joan dira, baina kondairaren emari dira neurri haundi batetan. Hala ere, kristautasunaren kondairan modelo bat baino gehiago izan da beti onartua. Eliza katolikoak gaur egun duen eraketa nahiko berandu lortu zuen bere osotasunean. Eliza katolikoaren gaur eguneko eraketa ez da nahitahiezkoa. Funtsean garrantzia duena Jesusen salbazio ahalmena eta eginkizuna da. Edozein eraketak ahalmen eta eginkizun horren zerbiztutan egon behar du, garai eta kultur bakoitzean eginkizun hori ahalik eta ondoen bete iza dadin. Karguak, eraketak ez du salbazioa ito behar, zerbiztatu baizik, eta horretarako eraketa aldatu egin behar bada, ez dago ezzerren eragozpenik.

Horixe da gaur esan nahi nuena. Hurrengoan Eliza katolikoa bere eraketaren osotasunera noiz, nola eta osatze hori zein izpirituan burutu zuten azaltzen saiatuko naiz, laburki bada ere.

JOSEBA ARREGI

OHARRA: Gaurko gai honi buruz liburu klasiko bat bada, «Kirchliches Amt und geistliche Vollmacht in den ersten drei Jahrhunderten», Hans Freiherr von Campenhausen, Tübingen, 1963, 2 ediz. Ez dakit gaztelaniaz badagoen.

Euskal Antzerkia Deustuko Unibertsitatean

Maiatzaren 19-an, larunbatez, Donostiako XARIBARI teatro taldeak Pilar Enciso eta Lauro Olmoren Batzar Nagusia izeneko obra eskeiniko digute, Deustuko Unibertsitatean.

Hasiera arratsaldeko 7,30-etan emango zaio Unibertsitateko Paranifoa. Ekintza hau Euskal Kultur Mintegiari zor zaio.

ASATE OPARIAK

GAI TA IRUDI POLITENAK

Victor Pradera, 2
(Esquina Zubieta)

DONOSTI

NEKAZARITZA AN ETA EMEN

Jose Alkiza

BERRIAK

DINAMARKAKO

NEKAZARIAK ETA BEHIAK

Nafarroako zenbait ganaduzale Dinamarkan izanak dira behi billa. Badira urte batzuk Euskal Errira behi «danesak» iristen asi zirela. Lehenengo Gurelesak ekarri zituen, noski, gorriak eta pintoak.

Gorri aietatik, ez dut uste, onezkerok asko geratuko denik, etorriak zahartuak behar dute eta arrazari segitzeko, ez da izan, ez erreztasunik ez gogo aundirik. Alere Nafarroako Murgindutetan, behintzat, badira oraindik.

Zuri-beltzekin ez da ori gertatu. Gero eta gehiago nahi ditu baserritarrak; batipat, arrazari begiratu, bigantxak etxean azi, eta ikullua auditzen eta obetzen ari direnak.

Gipuzkoa eta Nafarroako zenbait baserri-elkartek, behar zituzten behi guztiak, Dinamarkatik ekarri zituzten eta segituztik aien umeak aurrerako uzten asi ziren. Apenas gaur damurik daukaten.

Gaiñera Nafarroako diputazioak badauzka zezen danesak eta ango ganaduzaleek, aukeran daukate azia, etxeko behiak Dinamarkako arrazako zezenaren aziarekin ernaltzeko.

Pinto danes auek, etxean dauzkatenak diotenez, esne behi onak dira; gaiñera ganadu gogorra da eta jale ona. Ez du gutxi esan nahi.

Badute beste alde on bat ere, Gipuzkoan oso kontuan eukitzen dana: aragitarako ere onak izatea.

Baserritar askok behi pintoari ere txarolesaren azia jartzen dio, aragitarako txahal obeak izatearren. Txaroles pururik gutxi ikusiko duzu Gipuzkoan; baiña emengo mataderietan erdi-txaroles dan zekorria franko iltzen da. Orra ba: danesak daukan baserritar bati entzun nionez, oiek bezain onak dira zekorretarako danes pinto puruak.

Urrixa jaiotzei bada aurrerako utzi, idixkoa bada berriz ar ditzala erraldeak. Ori da jokabidea, Baiña ori ez dago egiterik esne behi pintoa txarolesarekin estalita. Ume arek, urrixa bada, aurrerako ez du batere balio. Pinto utsa berriz, ez dago 60 erraldeko zekorria azitzerik.

Alere, aurrerako bigantxak etxean izateagatik, esne behi onak merezi du holandaresaren azia jartzea. Kanpotik ere behia, pagatuta ekartzen da.

Nola iritxi dira Dinamarkako baserritarrak olako behiak izatera? eta ez bat edo bi, ugari baizik; etxerako aña ezezik kanpora saltzeko ere badituzte eta.

Erantzuna, esaten errazago da egiten baiña: 1895 garren urtean sortu zuten kontrola eramateko daukaten etxea. Onak esan nahi du, badaramazkitela 100 bat urte, behi obeak sortzeko ahalegiñak jotzen.

Gaur Dinamarkan diren behien erdiak baiña gehiago kontrolpean daukate.

Esolan propio ortarakoxe prestatutako 500 bat gizon dira kontrolatzaileak. Bakoitzak 1.500 behi dauzka bere kontrolpean, 70 bat baserrietan sakabanatuak eta urtean 13 bider aztertzen du behi bakoitza. Zenbat esne duen, esne orrek zer loditasun daukan, zer janari ematen zaion, eta abar, zehatz ikusi eta apuntatuko du.

Kontrol onen gastuak baserritarren bizkar dijoaz eta behi bakoitzeko 400 bat peza urtean kostatzen zaio.

Etxe ortan badauzkate kontrolpean dauden behi guztien fitxak eta datoak, I.B.M. konputadorekin lan egiten dute, eta jakia, ezin naziotik kanpora saldu, kontrolik gabeko behirik, ez bigarik, ez txahalik.

Dinamarka ez da lurralde zabala, 4 milloi bizilagun ditu. Oietatik % 12 ari dira nekazaritzan, baiña % 12 oiek badute abillidadea: nazio guztian behar dan iru alako janari sortzen dute.

Ia 100 urte daramazkite Dinamarkako nekazariak, bere jeneroa naziotik kanpora saltzen, eta orrexegatik, saiatu dira onenbeste, gauzak ondo egiten. Gaur Dinamarkak kanpora saltzen duen erdia, janariak dira.

Beste alderdi bat: baserritar bakoitza doxenerdi bat kooperatibatan sartua dago, zenbat zerbitzu behar, ainbestetan. Erosi eta saldu, dena kooperatiben birtatez egiten dute, baiña kooperatiba bakoitzak lan bat bakarara egiten du.

Esate baterako: esnea saltzeko kooperatiba bat daukate, aragia saltzeko bestea, abonoak edo aziak erosteko bestea, eta orrela.

Orra Dinamarkako nekazariak nola dabilzan. Beti dator ondo kanpoko berri jakitea etxean egin ahal baledi ere.

Udaberri ontan bertan, Nafarroako aurrezki kutxak bidaliak ditu bi ordezkari ara, gero emengo ganaduzaleei laguntzeko asmoz, eta Tudelako Santa Ana kooperatibara laster etorriko dira 70 behi emendik joan zirenak an bertan aukeratuak.

EGUZKILOREA ETA SOJA

Eguzkiloa eta soja guretzat pentsuak dira eta buruhauste franko ematen diguten pentsuak gainera, gutxi eta garesti iristen zaizkigulako. Gehienentzat, ordea, olio iturriak dira, ganaduaren pentsutarako erabiltzen dana, olio kenda gero gelditzen dan patsa baita.

Joan dan urte ortan, Espainiak 10.566 milioien balioa erosi zuen kanpotik oliotan. Sojarena bakarrik, jo-ta-ke egin baituzten propaganda, 16 milloi kilo illean gastatu ziran, aurreko urtean, 5 milloi bakarrik, gastatu baziran ere. Baiña auxe da xelebreena: alde batetik nekazariak eguzkiloa eriteko laguntzak eskeitzen jardun zutela, eta bestetik soja-olioa erosten kanpotik. Ez, ordea, eguzkiloaren olio eskas zalako, sobratu egin zan eta.

Eguzkiloa, Espainian erraz eta ondo etortzen dana, aurreko urtean baiña 15.000 Ha. gutxiago eroin ziran; saltzeko garaian, 12.000 tonelada kanpotik ekarriak azaldu ziran eta salmenta gelditu. Orrela 25.000 tonelada bertakoak sobre geratu.

Zertarako kanpotik soja-olioa ekartzen ari, etxean eguzkiloarena nahikoa dagoelarik eta behar balitz gehiago sortu ditekalarik? Nork daki!!! Ez da, ikusten denez, aragiaren kontua bakarrik.

Tierra de Campos aldean eguzkiloareki zuma kentzeko fabrika bat egitera doaz, 400 tonelada egunean eioke ditu. «Errota» orri dezanen lan guztia egiñarazteko 60.000-80.000 ha. landare beharoko lirake, baiña oraingoz 15.000 ha. koak joz asiko da.

Fabrika eri 980 milloi kostako da ta 972 pertsonari lana emango die. Irteten dan oliotik % 85 naziotatik kanpora salduko omen da.

ARDIAK ETA ARKUMEA

Aurtengo pazkoetan arkumea jateko egokiera izan baduzu, on ditzala. Ez baduzu, ez ikaratu. Urrengoan izango da zuretzat ere, dirudenez, erruz ugaltzen ari dirata.

Ona zer egin duen Francisco Vicente Salamankako artzaiak.

Bereizi zituen 100 ardi, urtean bi umaldi eginarazteko asotan, eta eman zizkien «pastillak». Ondorioak, ardiek umeak egin dituztenean azaldu dira eta begien bistan daude ikusi nahi dituen guztiarentzat.

Ardi batek 4 ume dauzka; lauek iruna, 12; ogeitamarrek bina, 60; irurogeitabatek bana, 61; danera 100 ardi 137 arkume.

Esan behar da gaiñera, bi ardi bosna ume egin zituztela, eta seiek launa, baiña batzuk jaio berritan il egin zirela eta lau antzu atera.

Pozik dago gizona galtzetan kabitu ezinik. Izan ere orain arte 100 ardi 90 arkume egitea, umaldi bikaña jotzen zuen eta oraingoa 137 egin dizkiote.

Baiña ez da ori bakarrik, bigarren umaldian beste oinbestetsu egingo dizkioten esperantza baitu. Urtean 274 arkume lirake, au da, lehen baiña 184 gehiago. Bada zerbait.

Ez, ordea, guztia. Arkumeok iru illabetetan 30na kilo egin ditezke ala gobernatu ezkerok pentsu eta abar; lehen berriz, 18na kilo egin zitzaizkion ozta-ozta.

Aragi pilla galantaren alde dago. Jan zagan ba arkume erreka kupida gabe. Salamankako kontuak urrutikoak direla iruditzen bazazu, «urrutiko intxaurrak amalau»... eta emengo artzaiak ez dutela orrelakorik egiten, itxogin pixka bat.

Gure arteko artzaiak esnetara jarriak daude asko. Behean, erri inguruan dabilzan bitartean, bada litroko 6 edo 7 durotan saltzen dutenak esnea, «mami» gatzatua egiteko. Orain mendira igoztean asiko dira gazta egiten. Zauden pixka bat. Esnea utzi eta arkumetara jartzea kontua duela oharitzen direnean, ikusiko duzu.

GERO ETA PLASTIKO GEHIAGO

Gaur ia gauza guztiak plastikoz egin ditezkeela dirudi. Alere urrengo lau urtetan bi alakotu egingo omen da plastikoen produzioa eta iru alako gauza gehiagotarako erabiliko. 1980garren urterako aitzai-ru ainbat plastiko sortuko da.

Nekazaritari dagokionez ia 10.000 Ha. lur badaude Espainian plastikopean. 1.900 Ha. berotegi; 3.500 tunelak; eta beste 4.500 luraren mugan plastikoa ezarrita daudenak.

Munduan laugarren omen da Espainia nekazaritzarako plastikoa erabiltzen. Barazkietan jeneroa azkarrago ekartzeko erabili ohi da gehienbat. Japon da plastikopean lanik gehiena egiten duena, baditu 60.000 ha. lur eta gehiago onela jarriak.

ARDO KONTUAK

Iñoz Errioxa aldera joaten zereanean edan ardoa; ona izan behar du. Andaluziako ardo etxerik sonatuenak Errioxan bodegak erosi dituzte: Domecq etxeak «Bodegas Palacios» erosi du eta Jerezko beste etxe batek «Paternina».

Gero Andaluziako ardorik onena edaten ari zeralakoan eta... Errioxako mahatsarekin egiña. Oraindik orain, neuri gertatu zait Errezillen: afaltzera joan eta botillak jartzen zuenek «etxeko ardoa» atera zituzten.

Nik, arrituta, galdetu nion nekaxari.

Añizu, Errezillen non dituzte ba mahastiak?

Joan dan urte ortan Espainiak 265 milloi litro ardo sartu ditu

Iparrameriketan, alere Frantziak gehiago 378 milloi litro.

Denak ardo onak, markakoak eta non enbotellatu diran jartzen dutela, Errezilkoak bezalaxe.

NAFARRAK DIRUTAN?

Orain bost urte larogei milloi zeuzkaten Nafarroako «Caja Rural de Ahorros» delakoan sartuta. Igaz larehun milloitar iritxi dira. Urteko batzarra egitean ala azaldu da.

ARAGIA

Españiak kanpotik aragia ekartzen duela gehiegi ere badakigu. Igazko urte ortan aurrekoan baiña 7.157 milloi peza gehiago gastatu dira kanpoko aragia pagatzen, aduanatako zuzendaritzak adierazi duenez.


Aragia eskas dagoela aditzen aspertuta gaudu, baiña, oraintxe ere, gure zekorrek ezin saldu. Arakiñak ez dituzte il nahi, jendeak ez duela aragirik erosten diote. Zer gertatzen da? Nork daki!!!

ZALDIA MAGALEAN

Munduko zaldirik txikiena Kaliforniako ori omen da. Zortzi bat kilo pixuan eta 45 cm. alturan, ez da iristen metroerdia.

Mister Ely zaldi txikiak «aztera» dedikatzen da, ahal dituen txikiak.

Madriden ere Felix Perez albaiteak baditu azi gabe geldiaraztako moxalak. Jan gutxi behar dute, otzanak, esaneakoak eta leialak dira. Txakur bat bezalaxe etxean eukitzeko eta neska zaharrei konpañia egiteko, oso onak omen dira.



Arkumeok iru illabetetan 30na kilo egin ditezke



Zaldia magalean